


# Berrigarra



## Zoratzen hasita?

Profesionalen ustez, EAEn ez dago kezkatzeko arrazoirik

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).  
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAI





# Nissan Primera berria



*Ibilbideaz goza ezazu.*

Comfort

Luxury

Sport

Elegance



**BLANCO**

Amillaga 22 - Tel. / faxa: 943 76 17 35  
20570 BERGARA

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. 20500 ARRASATE  
aldibi@nortekar.com





## Egoera nahasia

Martin Garitano / Kazetaria

Azken boladan bizi dugun egoera politiko nahasiak ez du eztabaida lasai eta sakona errezten, ezta hausnarke-ta zintzo eta konprometituari leku gehiegi-rik uzten ere, ez horixe, baina nahaste ho-rrak berak eta egun bizi dugun gatazkaren areagotzeak hausnarketa horretara bultzatu behar gaituelakoan nago. Ez da erraza, ber-ri diot, baina inoiz baino beharrezkoagoa.

Gertakari larriak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. ETaren borroka gogortu eta zabaldu egin da, denok ezagutzen ditugun ondorioekin, espainiar estatuaren agintari zein borrokoek lotsarik gabe eta biolentziaz ere euskaldunoi dagokiguna ukatzen jarrai-tzen dute eta inoiz baino harrokeri handi-agoz gure izana (izenarekin ere laster hasiko dira) ukatzen digute, euskara bera ere behin betirako Euskaltzaindiako lau pare-ten artean gordetzea nahi izango luketela-rik.

Eta bitartean, zer? Eta batzuk ozenki ETaren kontra jarduten dutelarik, besteek bizi dugun zampaketa salatzen dutelarik, beste batzuk ez bāta ez bestea ezin dela onartu diotelarik, zer? Irtenbiderik ba al dauka gure arazo zahar eta mingarri honek? Edota behin betirako gatazka odoltsu eta negargarrian bizitzera kondenaturik al dago gure herri zahar hau?

Ez dut nire baikortasuna ezkatutuko. Hasteko eta behin, berez baikorra naizela-

ko, ezin ukatu, baina bestetik gaur ere itxa-ropenerako elementuak ikusten ditudalako.

Lurraldetasuna eta subirautea arazoa da bizi duguna. Ez da, beraz, gutxiengo fanati-zatu baten eta gizartea defendatu beharrean aurkitzen diren indar politiko, mediatiko eta polizialen arteko liskarra. Ez gara ari eu-ren eskema ideologikoa gizarte osoari inpo-satu nahi dioten eta demokrazian sinesten dutenen arteko borrokaren aurrean, ez ho-rixe. Arazo askoz ere ximpleago (eta akaso horregatik konplexuagoa) baten aurrean gaude.

Galdera xume batzuei erantzunez hasi beharko lukete agintari zein agente sozial

*“Espainiar estatuaren agintari zein borrokoek lotsarik gabe eta biolentziaz ere euskaldunoi dagokiguna ukatzen jarraitzen dute eta inoiz baino harrokeri handiagoz gure izana (izenarekin ere laster hasiko dira) ukatzen digute”*

eta politiko guztiek. Ba al dago Europako bazter honetan, Kantauri itxasoaren ertzean euskalduna den herri bat? Esistitzen al da Euskal Herria? Euskara herri baten hizkun-tza al da? Herriek eskubide kolektiborik ba al dute? Euren etorkizunaz erabakitze-ko eskubide (eta premia) al dute? Demokrazia norberak bere borondatea erakutsiz eta al-damenekoen borondatea irabaziz gehien-goak lortzean datza? Onartuko al zenuke gehiengoak lortzeko besteek duten eskubi-dea? Ontzat emango al zenuke Euskal He-rriak, bere buruaren jabe delarik, gaur egungoaz gain beste era batera antolatze-ko erabakia hartuko balu?

Galdera horiei erantzun beharko liekte, bai jauna, eta guztietan baietz diotenekin egin beharko diogu aurre gatazkari. Ezetz erantzuten duena gatazkan bizitzearen aldeko apostua egiten baitu. Baietzaren alde-koekin bat egin eta eztabaida sakonari ekin beharko diogu, guztion jarrera ezberdinak erabat zilegiak direla onartuz, eta guztion (ezetzaren aldekoenak ere) eskubideen de-fentsan borrokatze-ko grina eta determina-zioa erakutsiz.

Egun latzak bizi ditugu, jakina, eta inor mindu barik ez da erreza horrela mintza-tzea, baina arazoa hor dagoela kontuan har-tuz, bere sustrai sendoak onartuz eta erre-alitateari bildurrik gabe aurre eginez hasiko gara zulotik ateratzen. Bestela, akabo.<

### barruan



**Juan Jose Alvarez**

Bergarako UNEDeko zuzendaria

*“Arlo askotan egin dugu aurrera, baina erronka ugari ditu oraindik UNEDek”*

8.



**Isidro Aranburu**

Taxilarixa

*“Karreteria beti gustatu izan jat; txikittatik eduki dot kotxiendako afiziñua”*

15.



**Joxe Antia**

Harakina

*“Behi eroen gaiarekin ez da kezkatzen jendea, bertako okelan konfiantza duelako”*

16.



# AGENDA ETA ZERBITZUAK



## BEKAK

**Atzerrian ikasteko bekak.**  
Kanpo Arazoetarako Ministerioa.  
Goi-mailako tituludunak. Udan edo ikastaroan zehar. Italia, Eskozi, Portugal, Belgika, Irlanda eta beste herrialdeetan. Hainbat epe.

## IKASTAROAK

**Hezkuntza. Hezkide Eskola.**  
Kulturen arteko hezkuntzari buruzko ikastaroa. 21 urte beteta izatea; Gaiarekiko sentsibilizaturatu daudenen-tzat: hezitzaileak, monitoreak, animatzaileak, etab. 2001eko maiatzaren 17tik 24ra bitartean. Ikastaroaren matrikula 2001eko apirilaren 24tik maiatzaren 11era izango da.

**Pertsona helduak.** Hezkide Eskola.  
Pertsona helduen ongizaterako esku-hartze psikofisikoari buruzko ikastaroa. 21 urte beteta izatea; Gaiarekiko sentsibilizaturatu daudenen-tzat: hezitzaileak, monitoreak, animatzaileak, etab. 2001eko martxoaren 20tik 24ra. Ikastaroaren matrikula 2001eko otsailaren 1etik martxoaren 16era izango da.

## SARIAK

**Literatura lehiaketa.**  
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako elkarte. Euskal Herrian bizitzea. Lehiaketak bi modalitate izango ditu: Poesia, gaia librearekin, eta Ipuina. "Hirugarren Mundua" gaiarekin. Epea: azaroak 30.  
**Erreportajea.**  
Egunkaria; BBK. I.Egunkaria-BBK erreportaje-lehiaketa. Erreportajeak bizkaieraz idatzita egon beharko du eta bere gaia librea izango da. Argizkiak originalak izango dira. Epea: abenduak 31.

## LAN ESKAINTZAK

**Peoia.**  
Ezkerriatzako Udala. Eskola ziurtagiria. B1 gidatzeko baimena. Epea: azaroak 27.  
**Emakumeen aukera berdintasunerako agentea.** Bilboko Udala.  
Erdi-mailako titulazioa, diplomatura edo balioakidea. Epea: azaroak 20.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

**BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA:** Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak  
Telefonoa: 943 77 91 57  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00  
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Iretargi, ietargi Ilargia.

'Iretargixai begira egon':  
adia galduta egon.  
- Egon ari iretargixai begira,  
ta ikusikok.

'Iretargixan moduko arpegixa':  
aurpegi borobila.  
'Talo arpegixa' ere esaten da.

'Iretargittan': ilargi argitan.  
- Lapurra gabian iretargittan,  
aixkol-otxak entzunda, jun bera,  
aintxintxika ta, baiña ies eñ.



## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

### San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Azaroak 9, eguena</b>	12 °C	1 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 10, eguakitza</b>	16 °C	0 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 11, zapatua</b>	15 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 12, domeka</b>	16 °C	6 °C	15 l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 13, astelehena</b>	12 °C	9 °C	2,2 l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 14, martitzena</b>	13 °C	4 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Azaroak 15, eguaztena</b>	13 °C	0 °C	- l/m <sup>2</sup>

## Farmaziak

### Eguakitza 17:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Zapatua 18:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Domeka 19:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Astelehena 20:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Martitzena 21:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Eguaztena 22:

CAMACHO. Oxironda 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguena 23:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

**Domeka 19:** Mizpildi.

## hildakoak

### BERGARA

**Maria Alejandra Oianguren Jauregi**

Azaroak 8, 86 urte

**Julia Igone Eraña Balanzategi**

Azaroak 11, 77 urte

**Juana Rodriguez Carrasco**

Azaroak 12, 86 urte

### ANTZUOLA

**Marina Jauregi Mendizabal**

Azaroak 10, 80 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

**Unai Etxarri Santos**

Azaroak 8



**Iraia Beitia**

22an 11 urte.  
Urte askotarako eta  
segi jator-jator!  
Etxekoak.



**Sara Sancho**

20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Ruth eta  
lagunak.



**Jon Aizpuri**

23an 21 urte.  
Urte askotarako!  
Hodei, Aitzol, Olaia  
eta Aitor.



**Ana**

22an 35 urte.  
Urte askotarako!  
Auskalo nor.



**Francisco Molina**

22an 65 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Marta  
eta Markel.



**Asier Taboada**

22an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Goiti**

22an 28 urte.  
Urte askotarako!  
Eider eta Ibon.



**Maitane Juaristi**

20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85


## zorion agurrak



URTEURRENA

**Basilio  
Fernandez Lopez**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, azaroak 19,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Amalia  
Flores Andueza**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, azaroak 19,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Ramon  
Etxeberria Ostolaza**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, azaroak 19,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

**Prudencio  
Goenetxea Aranzabal**

Bergaran hil zen  
2000ko urriaren 31n,  
87 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

**Isaac  
Larrañaga Orozco**

Bergaran hil zen  
2000ko azaroaren 6an,  
72 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Ainhoa De Marcos**  
20an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta  
Naiara.



**Pedro Jose  
De Oliveira**  
17an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Mikel Gallastegi**  
18an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Julen Seco**  
21ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Danel, aita eta ama.



**Amaia Gallastegi**  
18an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak,  
batez ere, Aitor.



**Pedro Narbaiza**  
17an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Bilobak eta  
familiakoak.



**Ion Perez**  
22an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Jon Ander Mujika**  
20an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Saioa, Iker, Mikel,  
Ane eta Miren.



**Martin Telleria**  
17an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Endika Mata**  
21ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iosu Diaz**  
17an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Alatz, Ibon eta  
etxekoak.



**Mariñe Diaz**  
17an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Alatz, Ibon eta  
etxekoak.



**Enara Chimeno**  
23an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Garcia  
sendikoak.



**Oihana  
Arazkonaga**  
22an 7 urte. Urte  
askotarako! Ander,  
Nere, ama eta aita.



**Remi Aranzabal**  
21ean 41 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mikel Aranzabal**  
21ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



## ANTZERKIA

► **"Hipo"**, Yllana taldearekin domekan, hilak 19, 19:30etan, Arrasateko Amaia antzokian.

## MUSIKA

► **Jam. Metalium eta Avalon** taldeak gaur, eguak-tza, 22:00etan, Bihar, ordu berean, **Albert Pla** eta **Benito Malasangre**. Eguenean, **Sylvain Sylvain**, 22:00etan.

► **Goikobalu abesbatza** eta **Begarako Orfeoia** bihar, zapatua, 20:00etan, Arrasateko Amaia antzokian.

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, **12:30ean**, Udal Pilotalekuan. Aurretik kalejira egingo da.

## ERAKUSKETAK

► **Mikel Gotzon Garcia** "Izurun" en margoak Nahikarin.

► **Marilu Unzurrunzagaren** margoak Eskoriatzako Kultura Aretoan, domekara arte.

## LEHIAKETAK

► **XIV. Arrasate Lehiaketak:** ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Lanak otsailaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira.

## JAIALDIA

### Bertso-trama

- Bihar, zapatua, 22:30ean
- Zabalotegiko aretoan
- Sarrera: 1.000 pezeta.

Jardun elkarteak antolatuta, San Martzialgo erromeriaren inguruko bertso jaialdia izango da bihar gauean Zabalotegiko aretoan. Ainhoa Agirreazaldegí, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Unai Iturriaga arituko dira bertsotan. Gai-jartzailea Karlos Aizpurua izango da. Aipatutako bertsolariek erromeriaren berri jasotzeko asmoz, lehen San Martzial eguna zelan ospatzen zen jakiteko hainbat pertsonari grabazioak egin dizkie Jarduneko lantaldeak eta, era berean, bideoak, argazki zaharrrak, ermitari buruzko idatziak eta antzinako ohituren berri eman zaie etorriko diren bertsolariei. Inigo Almortza, Xabier Azkarate, Joseba Larrañaga eta Eñaut Uriarte aritu dira prestaketa lanetan. Juanje Amasorrainek eta Mikel Murgizuk ateratako argazkiekin eta irudi zaharrek in-

gazki erakusketa jarri da Avenida eta Kortazar tabernetan.

Biharko jaialdian bertsolariek Iker Goenaga trikitilariaren laguntza izango dute eta, horrez gain, agertokia San Martzialgo zelaia balitz bezala girotuko da: mahaiak, gurdia, txingak, barrikak eta abar jarriko dira. Azkenaldian nahikoa zabaldu da bertso-trama, gai orokor eta bakar baten inguruko bertso saioa. Nekane Gabilondo eta Nerea Lazpiur Jarduneko kultur dinamiztaileen arabera, "aurten zerbait diferentea egin nahi genuen, azken urteetan antolatutako bertso jaialdietara ez delako jende asko etorri. Herrikoia delako eta adin guztiendakoentzat interesa duelako aukeratu genuen San Martzialgo erromeria". Biharko bertso jaialdirako sarrerak ohiko tokietan salgai daude.



Lehenago eta oraingo San Martzialei buruzko bertso saioa izango da bihar.

Argibide gehiago jasotzeko: 943 77 12 28.

## DEIAK

► **Kapirixoren** irteera Lizarrara azaroaren 26an. Irteera 8:15ean egingo da; 10:00ak al-

dera bisita gidatua Lizarran eta gero, Arellanon, San Roman elizako horma-marrazkiak eta bertako *villa* erromatarra bisitatuko dituzte; bazkaria 14:30ean. Izen-ematea (5.000 pezeta, bazkaria barne) azaroaren 23a baino lehen Kapirixoko goitzan (Barrenkale, 33) edo

943 76 51 44 zenbakian egin behar da.

► **Batasuna** prozesuaren barruan, txostenen aurkezpena bihar, zapatua, 10:00etan, Miguel Altuna institutu zaharrean. Txostenak zehatzago jarraitzeko 3 liburu salgai

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

# ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65





daude. Hilaren 24an, 19:00etan, txostengile guztiekin mahai-ingurua Ipintza institutuan.

► **Hitzaldia:** "Bergarako kasko historikoa", azaroaren 21ean, 19:00etan, Kultura Etxean.

► **Mahai-ingurua:** "Infrastrukturak eta garapena Deba bailaran", eguenean, hilak 23, 19:30ean, Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan.

► **Eski eta mendi materialaren** azoka txikia antolatuko da Pol-Polen azaroaren 27tik abenduaren 3ra bitartean. Hori dela eta, material bilketa egingo da hilaren 15etik 23ra.

► **Euskara Elkartearen Topagunearen** eskutik neguko olinpiadak 14-18 urte bitarteko gazteentzat azaroaren 25ean Itsasondan. Izen-ematea Jardunen hilaren 20ra arte. Argibideak: 943 76 08 19 edo 943 76 36 61 telefonoetan.

## JAIK

► **Animen eguna** Osintxun astelehenean, hilak 20. Gaztainak eta sagardoa banatuko dira Plazan 19:00etan.

## KINTADAK

► **1955ko kintoen** (1934 jaiotakoak) bazkaria azaroaren 25ean, 14:45ean, Antxonin. Izen-ematea Antxonin (2.000 pezetako depositua).

► **1944an** jaiotako enafaria azaroaren 25ean, Azpeitxi jate-txean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Santa Marinaran meza izango da. Izen-ematea: Sanchez ile apaindegian (943 76 23 70) edo 943 76 42 08 (Arantza Alberdi) telefonoan, azaroaren 20ra arte.

► **1959an** jaiotako enafaria azaroaren 25ean, Tartufon, 21:30ean. Afalostean, dantzaldia. Izen-ematea Tartufon edo Zer-Nai kafetegian.

► **1957an** jaiotako enafaria azaroaren 25ean, Errekin, 21:00etan. Izen-ematea (2.000 pezetako depositua) bertan.

► **1927an** jaiotako enafaria azaroaren 26an, Antxonin, 14:30ean. Aurretik, 13:00etan, hildakoen oroimenezko meza Santa Marinaran. Izen-ematea Antxonin (2.000 pezetako depositoa).

► **1933an** jaiotako enafaria azaroaren 26an, Torreku jate-txean. Aurretik, 13:00etan, meza izango da Santa Marinaran. Izen-ematea (1.000 pezetako depositua) Torrekuan edo Intxortan.

► **1977an** jaiotako enafaria abenduaren 2an, Zabala jate-txean. Izen-ematea Etxagi tabernan hilaren 26ra arte.

► **1951n** jaiotako enafaria abenduaren 2an, Azpeitxi jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea Euskadiko Kutxan azaroaren 29ra arte.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**La comunidad**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**B. Monkey**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

**Fugitivos**  
Eguakitza: 22:00.

**Fantasia 2000**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

#### El bar Coyote

Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 9:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### La gran vida

Eguena, hilak 23: 19:00, 21:30.

#### ARRASATE. Amaia

#### ¿Que es la vida?

Eguena: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

#### Jovenes prodigiosos

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

#### Bajo sospecha

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

#### La comunidad

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

#### U-571

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

#### Wonderland

Eguena, zine-kluba: 20:00.

### LA COMUNIDAD

**Zuzendaria:** Alex De la Iglesia.  
**Aktoreak:** Carmen Maura, Emilio Gutierrez Caba, Terele Pavez, Sancho Gracia. ▲ 13 URTE Donostiako Zinemaldiari hasiera eman zion filmak harre-beroa jaso zuen eta Carmen Maurak emakumezko aktore onenaren saria eskuratu zuen. Etxe batean 300 milioi topatu ondoren, agentzia baterako lan egiten duen *Juliak* (Carmen Maura) auzotar guztiei aurre egin beharko die. Umorre beltza eta tentsioa izango dira nagusi.

### B.MONKEY

**Zuzendaria:** Michael Radford.  
**Aktoreak:** Asia Argento, Jared Harris, Rupert Everett. ▲ 13 URTE *Beatrice* (Asia Argento) *B. Monkey* izenarekin ezagutzen dute bere lagunak. Lapurretak alde batera laga eta bizimodu lasaia eramateko itxaropena dauka. *Alan* (Jared Harris) ezagutzen duenean, ekintza kriminalak uzteko lehen urratsa emango du, baina bere iraganaren kontra ere borrokatu behar izango du...



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA



**Gaur, eguakitza, arratsaldeko 19:00etan egingo da Pleno aretoan UNEDeko 2000-01 ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa. Kurtsoa jada hasita dago, hainbat berrikuntzekin, gainera. Horretaz eta beste hainbat gauzatz hitz egin dugu Bergarako UNEDeko zuzendariarekin.**

**G.** Berritasun ugarirekin hasi duzue ikasturte berria.


**E.** Bai. Lehenengoa tutorizazio telematikoa da. Horren arabera, hiru urteren buruan ikasketa guztiak izango dute tutoretza telematikoa. Aurten Sistemen Informatika eta Gestioarekin eta Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioarekin hasi gara. Tutoretza telematikoa hiru arlo ditu: lehenengoa teorikoa da, hau da, irakasle bakoitzak sarean jarriko du gai bakoitzeko materia. Horrela, eskola aruntez gain, birtualak ere izango dituzte ikasleek. Bigarrena, informazio hori eguneratzean datza; eta hirugarrena, irakasleriari dagokio; izan ere, irakasleek etxetik edota beste toki batetik ere gehitu dezakete informazioa webgune horretara.

Datorren urtean, Hizkuntzen Urruneko Zentroarekin hasiko gara. Uste dut zentro pilotoa izango garelako, izan ere, ez da UNEDeko zentro guztietan hasiko. Alemana, ingelesa, frantsesa, euskara, katalana eta gailegoa eskainiko ditugu. Aurten hasteko asmoa geneukan, baina datorren ikasturtera atzeratu dugu. Hala ere, martxoa aldera, aurreinskripzioa irekiko dugu, batez ere, zenbat ikasleek izena emango duen ikusteko. Gainera, Turismo diplomatura berria ere eskainiko dugu aurtengo ikasturtean. Berrikuntza peda-

JUAN JOSE ALVAREZ

Bergarako UNEDeko zuzendaria

*“Aurrera egin dugu, baina erronka ugari ditu oraindik UNEDek”*



Juan Jose Alvarez, UNEDeko zuzendaria.

gogiko ugari izango ditugu.

**G.** Kurtso berria dagoeneko hasi da. Badago aldatarik ikasle kopuruari dagokionez?

**E.** Hilabete eta aste bat daramagu kurtso berrian. Ez dakigu zenbat ikasle dauden; izan ere, matrikula epea itxita dagoen arren, oraindik ere jendea matrikulatzera etortzen ari da.

*“Abendurako, seguruenik, Seminarioaren jabetza Udalaren esku utziko du estatuak. Gero, eraikina kanpotik berriztuko da”*

Egoitzan ere ikasturtean murgilduta gaudela nabaritzen da, jendea liburutegian, fotokopiak egiten... Egindako obrek beste giro bat sortu dute. Baina, oraindik erronka asko ditugu.

**G.** Liburutegia aipatu duzu; berria duzue eta baita bulego batzuek ere.

**E.** Bai. Liburutegia berria da eta baita tutoretza gelak, informatika gela eta idazkaritza ere. Orain obra sakonagoak egiteko proiektua prestatzen ari gara. Hau da, Seminarioko estalkia, fatxada eta bi lateralak konpondu nahi ditugu.

**G.** Denbora daramazue eraikina konpondu nahian; zertan da?

**E.** Madrilekin harremanetan ari gara. Oraindik ere estatua da Seminarioaren jabe. Harreman oso ona daukagu; hain justu, hazienda delegatua gure ikaslea da. Proiektua Madrilan dago, eta helburua jabetza Bergarako Udalaren eskura pasatzea da. Seguruenik lortuko dugu, baina abendura arte ez dugu erantzuna izango. Jabetza Udalarena izango den arren, guri zati bat erabiltzen utziko digu orain arte bezala.

Seminarioaren fatxada, estalkia eta lateralak konpontzeak 160 milioi pezeta-ko aurrekontua izango du. Ondoren, zortzi milioiko aurrekontuarekin, karrera-pea berriztuko da. Karrera-pea konpontzeko diru-laguntza dagoeneko badugu: Diputazioak sei milioi eman dizkigu. Lanak otsailean hasiko dira.

Seminarioko kanpoaldea konpontzeko 160 milioiak horrela banatuko dira: Ondare Zuzendaritzatik 100 milioi jasoko dira, Madrileko UNEDetik beste 25 inguru eta gainerakoa Patronatetik, hau da, Udal, Diputazio eta Kutxatik.






---

*Astero*



---

*Bailaran*




---

*Euskaraz*



---

*Doan*



---

Abendutik aurrera, zure eskura.



## Ibargarai kaleko aparkaleku publikoa Gabonetarako zabalik egongo da

64 aparkaleku izango dira eta txartela ateratzeko makina jarriko da

**Ibargarai kaleko aparkaleku publikoa ia bukatuta dago. Azken ukituak bakarrik falta zaizkio. Hala ere, Udalak ez daki oraindik zein kudeaketa sistema erabili. Baina, aparkaleku arazo delata eta, Gabonetarako irekiko du.**

Ibargarai parking publikoak 64 autotendako lekua dauka eta solairu bakarra. Aparkaleku arazoari irtenbidea emateko eraiki da, eta Gabonetarako abian egongo da. Hala ere, kudeaketa-gestioaren inguruan, hau da, ordaintzeko moduan, zehaztapen gutxi dago. Udalak enpresa bati agindu dio ordaintzeko modua aztertzeko, eta horretan ari da. Beraz, erabaki barik dago. Hala ere, Udalak Ga-



64 leku izango ditu aparkalekuak, eta orduak 50 pta. balioko du, seguruenik

bonetan irekitzea erabaki du, Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, herritarren erantzuna ezagutzeko data aproposa delako.

### ORDUA 50 PEZETA

Aipatutako gestio-bidea erabaki arte, parkingak behin-

behineko ordaintzeko modua izango du alkatearen hitzetan: "Arrasateko aparkalekuak bezala funtzionatuko du. Txartelak ematen dituen makina bat jarriko da, TAO dagoen tokietan bezalakoa. Horrela, bakoitzak autoa aparkatuta utziko


duen denboraren arabera kopurua ordainduko du". Horrek arrisku bat dakar: jendeak ordaindu gabe edo denbora gutxiagorako txartela eskuratzea, ez baita sarrera-irteeran hesirik egongo. Hori ekiditeko, udaltzain bat bertan egongo dela esan du alkateak. Gainera, orduak seguruenik 50 pezeta balioko duela aurreratu du.

### TAO, ERDIGUNEAN

Aparkaleku eskasiari beste irtenbide bat aurkitu nahian dabil Udala: erdialdean TAO sistema jartzeko aukera aztertzen dabil. Badirudi orain dela urte batzuk asmo hutsa zena garatzen ari dela; aparkalekua kudeatzeko sistema lantzen ari den enpresa TAO jartzeko aukera ere aztertzen dabil.

## Angiozarko etxeen isolamendua salatu dute

**Angiozarko** Bailarako Batzarrak bertako hainbat auzo eta baserri isolatuta daudela uste du. Batzarraren arabera, 60ko hamarkadan eraikitako bide berriek ez zituzten errespetatu ordura arte hainbat auzo eta baserri Angiozar erdigunearekin komunikatzeko zituzten bideak. Ondorioz, Galarraga-Elizamendi, Etxebarri-Munabe eta Gontzari-Angiozar bideak ibilgailuendako konpontzeko eskatu diote Udalarari. Horiek lehenagoko bide zaharrak dira, eta konponduz gero, esan-



Baserriak argazkiko bidearekin lotzeko bide berria eskatzen dute auzotarrek.

dako baserri eta auzoak Angiozarrekin komunikatuta geratuko lirateke. Aipatu etxeak erdigunetik ghe-

nez 3,5 km. ra dauden arren, gaur egun batzuek 10 km. egin behar izaten dituzte heltzeko. Horrez gain, di-

tuzten bideak Kanpanzarre-ra doaz, eta ondorioz, Arrasate edota Bizkaia aldera joateko ohitura hartu dute.

### AUTOBIDEKO MATERIALA

Aipatu bideak ibilgailuendako egokitzeko, Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango errepideak eraikitzeko egiten ari diren lanetatik sortzen den materiala, hau da, lurra eta harriak, erabiltzea proposatu dute Angiozarrekoek. Udala ados dago asmoarekin eta orain Diputazioa dabil gaia aztertzen.



## Ubera auzoko San Matei ermita konpontzen ari dira

**Orain dela** bi aste hasi ziren San Matei ermita konpontzeko lanak. Etxeberrihandi eta Santikua baserrien ostean dago, Elgetarako bide zaharraren ondoan. 1556. urtekoa da, eta oraindik ere meza ematen da bertan, urtero, San Matei egunean, abuztuaren 27an.

Urteen joan-etorrian ermita hondatu egin da. Erreteila egoera kaskarrean zegoen eta, gainera, hainbat itogin zituen.

Hasierako asmoa, baka-rik erreteila eta teilatuaren egitura konpontzea izan da, 1.800.000 pezetako aurrekontuarekin. Diputazioak milioi bat ordainduko du eta Bergarako Udalak gainerakoa.

### BARRUALDEA ERE BAI

Hala ere, teknikoen aholkuz, hobekuntza gehiago beharrezkoak dira: esku-



Ermitearen kanpo eta barrualdearen itxura eta osasuna hobetuko dira.

naldeko kapirixoa eta erreteila eusteko haga berriak jarri behar dira; izan ere, horiek eusten dute erreteilaren pisua eta egoera kaskarrean daude. Era berean, ermita barrutik ere berriztuko da: zorua konpondu egingo da, paretak margotu eta erre-taula eta zerua eraberritu. Erretaula eta zeruari dago-

kionez, Paulo Uranga pintoreak XIX. mende hasieran margotutakoak dira. Horiek garbitzeko beharra ere badago.

Azken lan hauen aurrekontua zehaztu gabe dago oraindik. Dena dela, Bergarako Udalak esleitu du, dagoeneko, proiektuaren prestaketa.

## Ekitaldi ugari Gazte Asanblak antolatuta

**Joan zen** eguaztenean, hilak 15, zazpi urte bete ziren Gaztetxea itxi zutela. Hori kontuan izanda, Gazte Asanbladak bilera informatiboa eta itxierari buruzko bideoa eskaini zituen eguaztenean. Zapatuan, hilak 18, egitarauarekin jarraituz, 16:00etatik 19:00ak bitartean Txapa Irratiak emisio antzekoa egingo du San Martin plazan. 18:00etan gaztain-jana egongo da eta 19:00etan Goloka antzerki taldeak "Eskeletoak" lana eskainiko du.

## Iraken aldeko arkatz bilketa abian da

**Arkatz bilketa** kanpaina abenduaren 20ra arte luzatuko da. Helburua, Irak-ek jasaten duen blokeo genozida salatzea da; izan ere, arkatzak ekintza militarretarako erabil daitezkeelakoan, EEBBek eta Erresuma Batuak betoa jarri diote Iraki arkatzen erosketan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan. Bestalde, arbelak, klaronak, koadernoak eta papera fabrikatzea ere debekatu diote. Kanpaina Euskal Herri osoan egingo da: Bergaran, hainbat ikastetxetan. Materiala toki hauetan utz daiteke: Udalean, Kultura Etxean, Matxiategiko estankoan, Peñalban, Idatzin eta Garbil inprimategian. Diru ekarpenak egin nahi izanez gero: Euskadiko Kutxa, 30350776930761047889.

## Ertzaina baten autoa kiskalita lehergailu baten ondorioz

**Eguenean**, goizaldeko ordu biak eta bost minututan, auto bat guztiz kiskalita geratu zen Aranerreka auzoan lehergailu batek eztanda egin ondoren. Aipatu auzoan bizi den ertzaina baten kotxe partikularrari jarritako lehergailua zen. Barne sailaren arabera, lehergailua etxean egindakoa zen, bidoi bat gasolina eta kanpingas bonbona batekin.

Ez da zauriturik egon. Bai, aldiz, kalte materialak: ertzainaren autoaz gain, on-

doan aparkatuta zeuden beste bi kotxek ere hainbat erredura izan zituzten, eta alboko komertzio baten eskapareteko kristalak apurtu egin ziren.

Goizeko 4:30 arte kalea itxita eduki zuen Ertzantzak, eta auto erasotua ere ordu horretan eraman zuten. Barne sailak azaldu duenez, gertakizuna ikertzen ari dira. Hala ere, kale borrokaren barruan kokatu beharrekotako ekintza bat dela gaineratu du iturri berak.



Kaltetutako autoetako bat.



# Berrigara

430 zenbakia.  
2000ko azaroaren 17a.

**Irizar jauregia. Barrenkalea 33.**  
20570 Bergara.  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Posta elektronikoa:**  
**berrigara@topagunea.com**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkoroberebizar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usua Mendibil, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre,  
Antxon Agirre Sorondo,  
Juan Martin Elexpuru.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk.  
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### EZ GARA EZER ALA?

Joan zen azaroaren 15ean zazpi urte bete ziren "Juven" edo Bergarako Gaztetxea itxi zigitela apaizek, Udala eta zi-paioen laguntzarekin. Orduetik, lokal baten faltagatik okupazio ugari burutu ditugu. Aipatzeko batzuk: Ibargarai kalean zegoen etxea, trenbideko gaztelua eta estazioa, Santanako etxe zaharra... Hauetatik guztietatik bota egin gintuzten eta kasu batzuetan etxea bota, eta ezer gabe utzi. Udaletxearen arku-petan ere egon ginen, protesta moduan, baina ez ziguten kasurik egin. Halako batean, Udalarekin harremanetan jarri eta negoziaketan hasi ginen, eta gazteon proposamen bat, Barrenkalea, Banco Guipuzcoano eta kalezuloaren artean zegoen aroztegi zaharra gustukoa genuela adierazi genuen. Bileran hori ostiral batean izan zen eta astelehenean, aroztegia bota egin zuen Udalak. Orduan ikusi genuen Udalarentzat Bergarako gazteok ez ginela ezer. Geroago Udaletxean gazteok proiektu bat aurkeztu genuen, eta badirudi onartua izan zela eta halako batean gazteentzako lokal bat ematea erabaki zuen. Bergaran, Kartzela Zaharra, Jardunekin erdi bana izango zela

zabaldu zen. Baina, ez da hala, gazteon lokalak kartzela alboan dagoen lokal txiki eta deseroso bat besterik ez da. Barruko galeria erabili dezakegu, baina beti ere, Jardunek bere baime-na eman ez eta beraiek ez badute erabiltzen. Kanpoan aurkitu dezakegun patioarekin berdina gertatu zaigu eta hasieran hain polita saldu ziguten proiektua hiru gelatxotara murriztu da. Kartzela barnean dauden 16 zeldetatik 3 besterik ez dizkigute eman. Hori al da "erdibana" hitzarekin ulertzen dutena? Berritze lanak egitekoak ziren, baina orain esan digute proiektua ez dutela onartzen eta beste proiektu bat aurkeztu behar dugu.

Udalak orain arte bezala jokatzen jarraitzen badu, badirudi beste urte asko pasatuko direla gazteok ditugun beharrak aseko dituen lokal bat eduki eta autogestionatu ahal izan arte. Gazteok etorkizuna garelara esaten duzue. Orduan, bada garaia gure egoeraz guztiok jabetzeko eta horretara emateko. Nahikoa da! Herri bat, gaztetxe bat, ez pospolo kaxa bat.

### ELEFANTEAK ETA LANGILEAK

Afrikako esaera zahar batek hala dio: bi elefante borrokatzen direnean benetako galtzailea haiek zapal dutako belarra dela. Modu berean multinazional handiek munduko merkatuen konkistarako abiatu duten borroka handian benetako galtzaileak ipar eta hegoaldeko langileak dira.

Zaila da besterik esatea Indonesian, Txina edo eta Filipinetan guretzako arropa, zapata edo eta jostailuak egiten dituzten lan baldintzak aztertuz gero: 70 orduko lan asteak, sindikatuen debeku eta errepresioa, haurdun gelditzen diren emakumeen kaleratzea...



Bidezko merkataritzak egoera hau aldatu nahi du. Horregatik antolatzen diren kanpaina berezietan hegoaldeko sindikatu eta bestelako talde sozial eta iparraldeko kontsumitzaileen arteko elkarlana bilatzen da, helburua ez baita hegoaldeko enpresak ixtea, transnazionalak eurentzako lan egiten duten langileak errespetatzea eta pertsonen lan duina edukitzea baizik.

I.A.H. NAN: 72.984.132  
M.N.O. NAN: 72.797.184

Harreman, Bidezko Merkataritza Denda

## tira biraka bittor rodriguez

**EXTREMADURAKO EDZEINTOKI.  
ARRATSALDEKO ORDU BIAK.**





## atrebentzia ezpada

**Janari azkarrak konpentsatzen du ohikoa prestatzen pasatzen dogun denbora?****Soledad Arrieta**

Igual bai, baiña geuk, behintzat, geuk gertatutako janarixa jaten dogu, ez dogu egindakua erosten.

**Pablo Roman**

Nik uste dot baietz. Hala be, etxian emaztiak gertatutakua jaten dogu, oso sukaldari ona da eta.

**Gemma Zubimendi**


Neri ez jat gustatzen janari klase hori. Nahixago dot goizago jaiki eta zerbait gertatzia mimuakin.

**Mirari Peña**

Azkar eta ondo be gertatu leike janarixa. Eginda saltzen dittuen gauza batzuk be onak izaten dira.

**Maria Araceli Osuna**

Janari azkarrari "zabor jana" be deitzen jako, eta, uste dot, zerbaittegaittik izango dala. Ez dot uste konpentsatzen dabenik.

**Anastasio Perez**

Bakoitzaren lanaren araberakua da hori. Denporarik ez daukanari ondo etortzen jako. Nik, hala be, nahixago dot betiko janarixa.

## bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

**FILM ALDAKETA AZKEN ORDUAN ZINE-KLUBEAN**

Ana Agirrearen deia jaso genuen aurreko eguakitzean erredakzioan. Joan zen eguenean, zine-klubeko programazioaren barruan iragarrita zegoen "La leyenda del pianista en el oceano" izenburuko filma ikusteko asmoz joan zen Ana, lagun batekin, Novedades aretora. Antza denez, zinema aretoko arduradunek ez zuten aipatutako filma eskuratzerik izan eta ikusleei ezer esan gabe "Bajo sospecha" filma eskaini zuten. Anak bere haserrea adierazteko deitu digu, zinema arduradunen jokabidea lotsagarria iruditzen zaiolako. Horrelakorik berriz ez gertatzea eskatu nahi du eta, aldi berean, zinemakoei zintzotasunez jokatzeko, sarrera ordaindu dutenei aldatekaren berri emanez.

**AGOITZ****Tapizdenda**

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA

**BASTER-ALDE****J A T E T X E A**

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tf.: 943 79 24 58

**EDEL**  
**TAPIZDENDA**

*Etixerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA****KONDE**

Burdinate 1  
Tf.: 943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A



## San Pedroko kanpaiak

Joan zen eguakitzaz gero, San Pedro parrokiako kanpaiak **berriz entzuteko aukera** dugu, ordu osoetan, laurdenetan, erdietan eta hiru laurdenetan, **goizeko 8etatik gaueko 10etara**. Lehengo tresneria, denborak aurrera egin ahala, kaltetuz joan da eta Santanderreko kanpaigileen bitartez sistema elektronikoa berria jarri da, amplifikadorea eta bozgorailuak tartean. Hain zuzen ere, **Belgikako Brujas** hiriko katedraleko kanpai hotsak dira Bergaran entzungo ditugunak. Hemendik partiturak bidali ziren, Brujasen grabazioa egiteko; eta San Martinen ereserkiaren zatiarekin **Miguel Gonzalez Bastidak** berak erlojurako doinuak agindu zituen.



## New Yorkeko maratoian

Argazkian agertzen diren bergararrek **New Yorkeko maratoian** parte hartu zuten azaroaren 5ean. Munduan jokutzen den lasterketarik ospetsuenetarikoa **32.000 lagun** elkartu ziren, eta **Mikel Larrañaga, Julen Narbaiza eta Aitor Eraña** (ezkerretik eskumara, irteera baino lehen ateratako argazkian) primeran aritu ziren. Probako giroarekin gozatzeaz gain, ez zuten inolako eragozpenik izan berau amaitzeko. Aitor Eraña 865. tokian heldu zen helmugara (3 ordu, 4 minutu eta 47 segundo), Julen Narbaiza 9.137. tokian helmugaratu zen (3:58:40) eta Mikel Larrañaga 9.996. izan zen (4:01:27). Irabazlea **El Mouaziz** marokoarra izan zen, 2:10:09ko denborarekin. Duda barik, betiko izango dute gogoan bergararrek lasterketa hau...

## ponentzien aurkezpena

- piztu euskal herria
- igitaia eta mailua
- aralar
- bateginez
- arragoa

### HERRI AURKEZPENA

Azaroaren 18a, zapatua, 10:00etan  
Elementaleko aretoan

### MAHAI INGURUA

Ponentziagile guztiekin  
Azaroaren 24a, eguakitzaz, 19:00etan  
Ipintza institutuan

euskalherrikoezkertiarren  
**batasuna**

ongi etorriak  
batasunaren  
prozesura



**Isidro Aranburu Ezkiokoa dan arren, urte asko daroia Bergaran. Duela hogeit bat urtetik dihardu taxilari Bergaran. Kamioilarixa be izan zan urte batzuetan. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba dauzka.**

## Isidro Aranburu

### Zelatan ezkiotar bat Bergaran?

Taxilari bezela lanera etorri nitzan hona, Bergaran taxilarixak falta egitten ziran-eta.

### Noiztik zabilta taxilari lanetan?

Lehenengo sei urtian ibilli nitzan; gero, hamabost kamioiarekin; eta, orain, duela 20 urtetik.

### Hillian zenbat kilometro egitten ditzuzu?

Hori ez da jakitzen, baiña, dana dala, pilla bat.

### Egin dozun bidaiarik luziena?

Parisera, Normandiara...

### Kotxerik gustokuena?

Nahikua diru eduki ezkeru, todoterreno on bat erosiko nuke.

### Zure lanian zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Neri karreteria beti gustatu izan jat, txiki-txikitatik eduki dot kotxiendako afiziñua.

### Eta gutxien?

Ordutegixa oso gogorra da, ez dakizu zer ordutegi edukiko dozun.

### Aldatzekotan, zertan lan egin nahi ziñuke?

Ez dakit, daukaten edadiarekin nora juango nitzake?

### Euskal Herrixa ondo ezagutuko dozu.

### Tokirik polittena?

Baztan aldia.

### Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Mendira juatia; perretxikotara eta ehizara.

### Aurten ibilli zara perretxikotan eta ehizan?

Perretxikotan bai, baiña ez dot ezer batu. Ehizarako, berriz, ez dot astirik hartu.

### Egunkarixan, zer da irakurtzen dozun lehenengua?

Portadia; eta gero, gehixenbat, kirolak.

### Telebista saio bat?

"Goenkale" ikusi izan dot, baiña ja aspertuta nago; bestela, pilota partiduak asko gustatzen jat.

### Beti egin nahi izan dozun zerbait, baiña oraindik egin ez dozuna?

Gehixenak eginda dauzkatela uste dot.

### Hautzaroko oroitzapenik polittena?

Erromerixak.

### Eta txarrena?

Txarrik ez dot uste daukatenik.

### Zure bertute bat?

Hori ezin da esan.

### Eta defektu bat?


Pilla bat.

### Bestiengan, berriz, zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Pertsona ona izatia; neure aldetik be lagun ona izaten saiatzen naiz.

### Etorkizunerako amets bat?

Etorkizunari osasuna eskatzen jat, horixe da inportantiena.




**MIKEL GARCIA**  
"IZURUN"



pintura-erakusketa

**NAHIKARI** taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71



**Eguneko menua daukagu.**

**Asteburuetan, afari berezia 1.500 pezetan!**

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.




**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**

**Pintxo eta ogitartekoen**  
**espezialitatea**

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62

**POL-POL**  
**Taberna**

943 76 07 78







# Jan ala ez jan

**Adituen ustez, bertako okela janez gero, ez dago inolako arriskurik**

**Duela zortzi bat urte azaldu zen lehen aldiz "behi eroen" gaixotasuna, Erresuma Batuan. Asko hitz egin zen garai hartan gaixotasun horri buruz, baina guri, euskaldunoi, urruti geratzen zitzaigun arazoa zen. Orain, hala ere, Irlandara eta Frantziara ere hedatu da, eta hona iristeko arriskua ere ba omen dago. Badirudi, beraz, guri ere kezkatzen hasteko ordua iritsi zaigula.**

**G**aitz horrek animalien burmuinean eragiten du, eta baita bizkarrezur muinean ere. Hori dela eta, "animaliak koordinazioa galtzen du, azkura eragiten dio, behin eta berriz erortzen da, mozkortuta balego bezala dabil", Gorka Elortza Gipuzkoako Behi Elkarteko kideak azaltzen digunez. Eta hortik, hain zuzen ere, hartu duen izena, behi eroena, alegia.

Baina, behi eroen gaixotasunak horrelako oihartzuna izan badu, gizakion osasuna arriskuan jar dezakeelako izan da; izan ere, kutsatutako okela janez gero, gaixotasuna bera transmititu daiteke, eta gizakiongan ere berdin gara-

tuko litzateke gaixotasuna; hau da, burmuinean eragin eta koordinazioa galtzea ekarriko lizkiguke.

Ardiei ere eragiten die gaixotasun horrek, baina, kasu honetan, beste izen bat hartzen du: scrapie. Beraz, gizaki, behi eta ardiei dagokien gaitza da.

#### **SCRAPIE: ASPALDIKO GAITZA**

Ardiek ere, esan bezala, izaten dute gaitz hau, eta aspalditik, gainera. Scrapie izena hartzen du kasu honetan. Frantzian, esaterako, zerbait normala izan da, kasu asko eman da betidanik. Juan Ramon Bujanda al baitariak dioskunez, "ardiengandik ezin da gizakien-gana transmititu, eta, beraz, sintomak agertzen dituzten ardiak hil egin izan

dira, eta kito". Gertatu dena zera izan da, bere hitzetan: "Ardien hondakinak pentsua egiteko erabiltzen hasi zen gizakia, eta hor hasi ziren arazoak, behie bai transmititzen zielako gaixotasuna, eta behiek, berriz, gizakiei".

Hala ere, era guztietako pentsuak daude: animalien hondakinak dituztenak osagai, eta baita zereal eta belarrez soilik egindakoak ere. Bigarren kasu honetan, beraz, ez da inolako arazorik sortzen.

Euskal Herrian sekula ez da ohiturarik egon animalien hondakinak pentsutarako erabiltzeko. Bertako klima dela eta, nahikoa zereal eta belar ekoizten denez, ez da horretarako beharrik egon. Gainera, 1996tik estatu es-



painiarrean debekatuta dago ugaztunen hondakinak pentsutarako erabiltzea.

### EUSKALDUNOK, LASAI EGOTEKO MODUAN

Euskal Autonomi Erkidegoan, beraz, lasai egoteko moduan omen gaude. Gorka Elortzak esan digunez, hemen gehiago kontrolatzen da prozesu guztia. Kontsumitzailea lasai egoteko moduan dago, beraz, pentsua behar den bezala kontrolatua dagoelako, eta, gainera, oraindik behintzat, ez da behi eroen kasurik izan. Bertako okela dela ziurtatzea omen du kontsumitzaileak bermerik onena.

Joxe Antiaren esanetan, bertako okela besterik ez du saltzen, eta "bezeroren batzuk behi eroen gaia ateratzen duten arren, ez dirudi jendea gehiegi kezkatzen denik, konfiantza baitute bertako okelan". Imaz harategikoa ere bat dator. Bere esanetan, "okela nondik datorren baldin badakizu, ez dago beldurtzeko arrazoirik".

German Muruamendiaraz, Eusko Labeleko kideak lasai egoteko moduan gaudela esan digu euskal okela kontsumituz gero.

Maite Aristegi EHNEko idazkariak bestela pentsatzen du: "bildurtzeko ez, baina adi egoteko esango nioke jendeari. Gai hau ez da txantxetakoa, eta guk, sindikatu bezala, beti salatu izan dugu ganadua hazteko ekoizle handiek erabiltzen dituzten gizentze sistemak arriskutsuak direla".

### KANPOTIK DATORREN OKELA

Orain arte, okela asko sartu izan da Europako hainbat herrialdeetatik, Frantziatik, batez ere. Bertako ekoizleek bertakoaren alde lan ugari egin arren, Maitek dioskun bezala, kanpokoa merkeagoa denez, asko saldu izan da. Hala ere, ez da inoiz kutsaketa kasurik egon.

Estatu espainiarrak aste honetan bertan hainbat neurri berri hartu ditu gai honen inguruan. Alde batetik, aurreko astean hartutako neurriari bere horretan eutsiko diola esan du; hau da, Irlanda eta Frantziako behirik ezingo da estatura sartu. Bestetik, estatu barruko ganaduari egiten zaizkion kontrol probak areagotu egingo ditu.

Neurri hau, hala ere, sakon aztertu beharrekoa da; izan ere, 20 hilabetetik gorako ganaduari aplikatzen zaio esta-



Harakinen arabera, jendeak konfiantza guztia dauka bertako okelan.

tura sartzeko debeku hau. Kontuan hartu behar da, inportatutako ganadu gehiena sei eta hamabi hilabete bitartekoa izaten dela, gero hemen hazteko. Beraz, neurri horrek ez ditu gauzak gehiegi aldatzen.



**Euskal Autonomi Erkidegoan ez da animalia ugaztunen hondakin eta koiperik erabiltzen ganaduarendako pentsua egiteko**

### KONTSUMITZAILEON KULTURA ALDATU BEHARRAZ

Gorka Elortza Behi Elkarteko kidea eta German Muruamendiaraz bat datoz kontsumitzaileok ohiturak aldatu behar ditugula esatean. Euren ustez, dirua gastatzerakoan baditugu geure lehentasunak, eta lehentasuna ez da elikadura izaten. Germanen esanetan, "nahiago izaten dugu askotan auto bat erosten gastatzea dirua, eta elikaduran, berriz, ahalik eta merkeenera jotzen dugu. Ohitura hori aldatu behar dugu, eta kantitateari baino kalitateari begiratzen eta berau baloratzen ikasi beharra dugu. Eta bermea eta kalitate hori bertako okelak ematen digu".<

**Behi eroen gaitzak burmuina gaisotzen du: behiak koordinazioa galtzen du, azkura izaten du... mozkortuta balego bezala ibiltzen da**



adituen esanetan

# Animalien zahartzarora

Gizakiokin gertatzen den antzera, etxe-ko animalien (katuak eta txakurrak) zahartzarora bizitzaren beste etapa bat da. Katuen kasuan, 9-10 urtetik aurrera zaharrak dira eta txakurrei dagokienez, arraza txikikoak (*yorkshire* edo *cocker* txakurrak) 15 bat urte bizi ohi dira, arraza ertainekoak (ehiza txakurrak, *buskyak*...) 13 urte eta arraza handikoak (dogoak, mastinak, artzain-alemaniarrek esaterako) 10-11 urte. Arraza handiko txakurrak (25 kilotik gorakoak) 6-7 urtetik aurrera zahartzat har daitezke eta arraza txiki-koak 9-10 urtetik aurrera.



REBECA SECO

Albaitaria

*“Animalia zaharrek gaixotasunak izateko arrisku handiagoa daukate: gingibitisa, tumorea, bihotzeko mina, prostata arazoak...”*

Zahartzarora gorputzeko organoek bere funtzioa galtzen dute eta birsortzeko ahalmena ere bai. Gauzak horrela, gaixotasunak izateko arrisku handiagoa daukate animaliek: gingibitisa, hortzak jaustea, bihotzeko mina, bronkitis kronikoa, prostata, tumoreak, diabetesa eta artritisa.

Zahartze prozesuan hainbat faktorek zerikusia izaten dute. Alde batetik,

elikadura aipatu behar da. Frogatuta dago janari komertzial orekatua jaten duten animaliak etxe-ko edozein janari jaten duten animaliak baino denbora luzeagoz bizi direla. Izan ere, etxe-ko janariaz ari garenean, hondarrei (hezurrak, ogia...) buruz hitz egiten dugu normalean. Bestalde, animalia lodiak denbora laburragoz bizi dira eta kanpoan (txaboletan) bizi direnekin beste horrenbeste gertatzen da. Herrietako animaliak hirietakoak baino denbora luzeagoz bizi dira, kutsaduragatik

eta baita istripuengatik ere.

Animalia zaharrek hezurak ahulagoak dituzte, ikusmena eta entzumena galtzen hasten dira, sistema immunologikoak eta nerbioak ere ahalmena galtzen dute, gure aginduak betetzea gero eta gehiago kostatzen zaie eta orientazioarekin eta ikasitako portaerekin arazoak izaten dituzte. Euren bizi kalitatea hobereena izatea eta urtean behin-edo txekeo bat egitea gomendatzen da, elikadura zainduz.



Etxeko animalia zaharrei gero eta gehiago kostatzen zaie gure aginduak betetzea.

bergarako errota



## OSINTXU-BOLU

Manuel Larrañaga Murua (72 urte) eta Jose Zanguitu Iturbe (72) nekazariak bizi ziren garai hartan “Molino de martires” en (biek zekiten idazten eta irakurtzen), 1890eko errolda ofizialaren arabera.

1895ean Manuel Larrañaga zen erroteria.

1917an Luis Zanguitu zen jabea.

1927an errota urak Bergara hornitzeko hartzen hasten dira, baina ez zen ur gutzia erabiliko.

1929ko GAO:

*“On Valentin Movilla bergararrak, Sobrino de Fernandez y Cia-ren izenean, eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Muzkiritxu-errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek Martires-Oxiranzu izeneko auzoan dagoen Osinchucobolua errota argindarra sortzea du helburu. Jasotzen duen ur-emia segundoko 60 litrokoa da, eta 4,5 metroko jauzia dauka...”*

Muzkiritxu-errekako urez baliatzen zen, eta beronen eskuman zegoen kokatua. Bi burdin-errodete zeuzkan bi pare harri mugitzeko. Horrez gain, argindarra ere lortzen zuten etxerako.

Azken urteetan 5 Kv-tako “J.M.L.-O.Onena.G.” markako alternadore bat jarri dute, beste gune batzuek ere argindarra izan dezaten. Gainera, errota okindegi ere bada.

1974an egin zuten azken ehotzea.

1931n hartu zuen alta irin errota publiko honek, Felipe Garmendia Uleciaren izenean. Honek, 1944tik errota okindegi ere izateagatik, kuota bat ordaindu behar izan zuen. 1963ra arte izan zen errota publiko.

KOKAPENA: Osintxuko zubitik 50 metrora, Muzkiritxu erreka gainean.

Antxon Agirre Sorondo



# San Martzial eguna Bertsoan

## Bertso-trama

Ainhoa Agirreazaldeg  
Andoni Egaña  
Sebastian Lizaso  
Unai Iturriaga



Gai-jartzailea:  
Karlos Aizpurua

Trikitilaria:  
Iker Goenaga


Azaroaren 18an,  
zapatua, 22:30ean  
Zabalotegi aretoan

Sarrerak ohiko tokietan,  
1.000 pezetan.

Argazki erakusketa  
aretoan bertan!



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK

Avenida  
taberna



BERGARAKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



INPRIMATEGIA



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



## Herriko 130 korrikalarik amaitu zuten Behobia-Donostia proba

Bergarako 130 korrikalarik amaitu zuten domekan jokaturako Behobia-Donostia lasterketa. Herriko partaidetzari dagokionez, gizonezkoetan, Jon Arantzabalek egin zuen markarik onena aurreko bi urteetan bezalaxe. Emakumezkoetan, berriz, Belen Dominguez izan zen Bergarako onena, marka bikainarekin, gainera: 1:35:42.



Argazkian, ezkerrean Jon Arantzabal eta eskuinean Jon Balentziaga.



Hirugarren urtez jarraian Jon Arantzabalek egin zuen herriko denborarik onena. Arantzabal 46.a izan zen helmugan, 1:08:33ko markarekin. Iazko ekitaldian 15 segundo gutxiago behar izan zituen ibilbidea betetzeko, baina orduan 59.

postuan sailkatu zen. Herriko sailkapenari dagokionez, ez da aparteko aldaketarik izan, aurreneko postuetan behinik behin. Joan zen urtean lehen bost postuetan sailkatu zirenek euren mailari eutsi diote: Aitor Rementeria izan da herriko bi-

garrena (3. iaz), Roberto Zurro hirugarrena (2.a 1999an), Javier Moreno laugarren geratu da (5.a iaz) eta Aitor Eraña bosgarrena izan da. Iaz laugarren izan zen Eraña, baina gogoratu behar da New Yorkeko maratonia korritzetik zetorrela

aurten. Aipatutako arteen Aitor Rementeriak eta Javier Morenok hobetu dituzte euren markak joan zen urtearekiko. Arantzabal eta Rementeria lehendabiziko 100en artean sailkatu ziren.

Emakumezkoetan, Belen Dominguez izan zen herriko onena, 1:35:42 denborarekin, Birginia Rubiok 1:42:51 egin zuen eta Amaia Agirrek 1:51:03.

Antzuolarrei dagokionez, Iker Larrea (1:11:33), 92. postuan, eta Pili Fernandez (1:45:12) izan genituen onenak.

Domekako lasterketan 10.000 partaide inguru izan ziren eta Gidaguday tanzanarria izan zen irabazlea, 1:01:48ko denborarekin. Diego Garcia azkoitiarra bigarren geratu zen.

### Sailkapen ez ofiziala

Iturria: Fortuna Elkartea

#### BERGARAREN SAILKAPENA

Postua	Izena	Denb.
46	ARANTZABAL EZPELETA, JON	1:08:33
99	REMENTERIA GANTXEGI, AITOR	1:11:40
145	ZURRO USABIAGA, ROBERTO	1:13:38
184	MORENO CASTELO, JAVIER	1:14:48
201	ERAÑA ARROIABE, AITOR	1:15:08
237	SOTIL MAIZTEGI, AITOR	1:15:54
330	LASKURAIN ZUBIA, AITOR	1:17:28
378	URIBESALGO BIKUÑA, XABIER	1:18:12
408	LLOJ PEREZ, XABIER	1:18:37
437	IBARRA MOÑUX, JABIER	1:18:52
442	LAZKANO BIKENDI, XABIER	1:18:53
705	RODRIGUEZ FERNANDEZ, MAOLO	1:21:52
818	GARCIA ARKAUZ, AITOR	1:23:04
949	BALENTZIAGA LARRAÑAGA, JOXE	1:23:54
955	ZANGITU MUJIKA, IÑAKI	1:23:57
1009	GARITANO GAMINDE, XABIER	1:24:22
1070	AGIRRIANO AYASTUI, ANGEL	1:24:49
1128	ZENAZAS APELLANIZ, FELIX	1:25:19
1335	ZANGITU MADINA, BITXOR	1:26:37
1350	KEREXETA LIZARAZU, J. ANTONIO	1:26:42
1429	MUJIKA ELORZA, GORKA	1:27:12
1496	BASAURI GAMBDA, UGUTZ	1:27:41
1505	ALDAI ELKORORIBRE, KARLOS	1:27:43
1542	DE GOÑI RIPA, RICARDO	1:27:51
1565	ETXANIZ ALBERDI, MIKEL	1:27:57
1640	PEREZ ARISTI, GORKA	1:28:16
1843	OLANETA ELEXPURU, IÑIGO	1:28:18
1868	LABAKA ARANDO, JESUS M.	1:29:23
1978	LETURIA EGUREN, KEPA	1:29:50
1980	SANCHEZ GANCHEGUI, IKER	1:29:51
2017	CERDEIRA LASHERAS, IMANOL	1:30:00
2056	JAUROS LASKURAIN, ARITZ	1:30:11
2172	ORTIA RODRIGUEZ, OSCAR	1:30:45
2342	GABILONDO MILLET, JOXE M.	1:31:47
2421	UGARTE BIZIOLA, JON	1:32:12

2602	ELEXPURU ARREGI, J. MARTIN	1:33:13
2625	ALBISUA IRAOLAGOITIA, J. IGNACIO	1:33:21
2684	VARELA FERNANDEZ, MANUEL	1:33:42
2733	UGALDE PEÑA, JULIAN	1:33:55
2743	SANTOS ZELAIETA, MIKEL	1:33:58
2822	URIBESALGO ABANDO, MIKEL	1:34:21
3037	GARITANO ASKASIBAR, XABIER	1:35:28
3043	URISABEL ASEGINOLAZA, IGOR	1:35:30
3077	DOMINGUEZ GARRIDO, BELEN	1:35:42
3216	CAMBORNEL MARTIN, CARLOS	1:36:28
3276	LAZKANO BIKENDI, ENEKO	1:36:48
3310	GARITANO ASKASIBAR, JON ANDER	1:37:00
3353	ELKOROBREZIBAR MARKIEGI, ENRIQUE	1:37:10
3370	ALVAREZ BERRIOTXOA, ENAUT	1:37:17
3559	ANDONEGI, IÑAKI	1:38:09
3705	AGIRREBEÑA OTEO, IBAN	1:38:53
3717	MUJIKA GOIKOETXEA, IÑAKI	1:38:56
3758	ANDUEZA, IÑAKI	1:39:07
3836	ACHAHBAR ACHAHBAR, MOHAMED	1:39:27
3971	BERASATEGI ARMENDARIZ, ION	1:40:01
4036	MUGIKA ODRIOZOLA, J. IGNACIO	1:40:17
4063	BELASTEGI ZUBIA, PELLO	1:40:23
4122	ARRIETA ETXEBERRIA, GORKA	1:40:39
4356	INZA BEGIRISTAIN, AITOR	1:41:43
4495	LAZPIUR ITURRIKASTILLO, M. ANGEL	1:42:20
4508	AKIZU AGIRRE, AITOR	1:42:23
4586	ARREGI AYASTUI, JOSE LUIS	1:42:47
4589	LALINDE GONZALEZ, EDUARDO	1:42:48
4603	RUBIO GAMINDE, BIRGINIA	1:42:51
4779	ORBEA ASCASO, JAVIER	1:43:31
4840	BALZATEGI MUGURUZA, J. RAMON	1:43:48
4933	LASKURAIN AIASSTUI, ROMAN	1:44:14
5047	AMASORRAIN USABIAGA, J. ANGEL	1:44:44
5064	SANTOS GARCIA, CELESTINO	1:44:48

5089	LARRAÑAGA BEITIA, ANDER	1:44:54
5250	GRAEGI MARTIN, JOSU	1:45:39
5268	BEISTEGI GARITANO, LUIS M.	1:45:46
5269	ALBERDI ARIZAGA, LUIS M.	1:45:46
5271	VALGAÑON GOMEZ, JESUS M.	1:45:46
5274	LARRAÑAGA LETE, MATEO	1:45:48
5415	ARAZKONAGA PEREZ, JESUS	1:46:29
5434	LAZKANO AZKARGORTA, JAVIER	1:46:36
5477	GARITANO MURUAMENDIARAZ, IBON	1:46:45
5478	UGARTE ETXEBERRIA, UNAI	1:46:45
5581	ALBERDI URRIATEGI, MIKEL	1:47:16
5683	LASA ARANA, J. MANUEL	1:47:46
5709	ARRIARAN INZA, J. ANGEL	1:47:52
5729	ETXANIZ ALBERDI, IÑAKI	1:48:00
5765	ALBERDI ZANGITU, GERMAN	1:48:12
5797	ARRIETA MENDIKUTE, ASIER	1:48:20
5798	AKIZU AGIRRE, IÑAKI	1:48:20
5870	DE PEDRO LASKURAIN, MARTIN	1:48:42
5956	AGIRRE MADARIAGA, ANARTZ	1:49:09
6021	ZANGITU ALBERDI, JULIAN	1:49:31
6063	REIFS OTS, MANUEL	1:49:45
6069	LARREA ARANA, MANU	1:49:47
6174	ENA ELUSTONDO, ALFONSO	1:50:20
6193	TELLERIA VIANA, CARLOS	1:50:25
6223	HERNANDEZ, FERMIN	1:50:34
6304	AGIRRE URRUTIA, AMAIA	1:51:03
6360	LASA ALBERDI, KARLOS	1:51:18
6376	GARITANO ZUAZOLACIGORRAGA, ANDER	1:51:23
6496	LANDA OÑATE, RICARDO	1:52:01
6588	SOTIL ARRIARAN, LUIS M.	1:52:33
6724	ELKORO FERNANDEZ, AITOR	1:53:12
6791	AZKARATE ASKASUA, J. RAMON	1:53:34
6851	NAJERA ORTIGOSA, FERMIN	1:53:58
7090	ARANES USANDIZAGA, JORGE	1:55:26
7250	BALENTZIAGA LARRAÑAGA, JON	1:56:30
7280	LOPEZ AZURMENDI, J. JOSE	1:56:40
7282	ORMAETXEA, MIKEL	1:56:41

7283	GARAI FERNANDEZ, AITOR	1:56:41
7287	AZKARATE ZABALO, ROBERTO	1:56:41
7297	FERNANDEZ BASTERRA, PEPE	1:56:44
7323	AZKARATE ZABALO, OSKAR	1:56:52
7481	REPARAZ MENDINUETA, IOSU	1:58:10
7493	ARANZABAL LARRAÑAGA, GORKA	1:58:16
7497	ARANBURU JIMENEZ, ANDER	1:58:18
7499	IRIZAR, MIKEL	1:58:19
7598	BIKUÑA IBARZABAL, AINHOA	1:59:17
7663	ARRIOLO ERAÑA, PEDRO	1:59:51
7864	ZANGITU ALBERDI, CARLOS	2:01:22
7921	GARITANO MENDIBIL, PELLO	2:02:03
7965	GALLASTEGI OIANGUREN, JOSE LUIS	2:02:32
8123	MENDIZABAL URRETA, AINTZANE	2:04:32
8124	ARANA OREGI, JAIONE	2:04:32
8181	CERRERO DIEZ, GUSTAVO	2:05:17
8330	ARANGUREN IRAZOLA, GOTZON	2:07:22
8576	URIBE ETXEBERRIA OTEGI, MAITE	2:12:45
8579	ALBISUA URIBARRI, AMAIA	2:12:58
8763	MARCO INZA, SILVIA	2:22:46
8764	LARRAÑAGA ELORZA, XABIER	2:22:47

#### ANTZUOLA

Postua	Izena	Denb.
92	LARREA SORALUZE, IKER	1:11:33
866	GARITANO ARREGI, JOSEBA	1:23:22
1600	ARBULU OLABARRIA, BITTOR	1:28:07
4484	KORTABARRIA LEGORBURU, JESUS	1:42:17
5160	FERNANDEZ MARTIUA, PILI	1:45:12
7390	IRIZAR, IKER	1:57:20
7398	ARANGUREN FERNANDEZ, ION	1:57:21
8031	ARIN FERNANDEZ, HARRI	2:03:23
8036	LARREA MENDIZABAL, IGOR	2:03:27
8192	JAUREGI ARNURBU, AITZOL	2:05:26
8251	IDIAEZ ARBULU, UNAI	2:06:11



# Bergarak Reala hartuko du zapatuan Agorrosinen

Bergarako futbol talde nagusiak Real B taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, 15:30ean Agorrosinen. Roberto Lopez Ufartek entrenatzen duen taldea 3. mailako liderra da, 28 punturekin, baina mahone-roak 3 puntuak eskuratzeko asmoz zelairatuko dira, Garai etxekoen entrenatzailearen arabera.

Donostiarrek ez dute oraindik partidurik galdu aurtengo ligari: zortzi partidua irabazi eta gainerako laurak berdindu egin dituzte eta, beraz, Juanina Garaiaren taldeak partidua zaila izango du bihar. Realak hiru puntuko alde ateratzen dio bigarren postuan dagoen Lemoa taldeari eta lidertzari eusteko ezinbestekoa du garaipena lortzea.

Juanina Garai Bergarako entrenatzailearen hitzetan, "aurten ez dut Real ikusi, baina Gipuzkoako selezioa da azken batean, eta ez dugu partidua erraza izango. Hala ere, jokariak horrelako partiduetarako gehiago motibatzen dira eta irabazten ahaleginduko gara. Erasoko jokaldietan zorte pixka bat izanez gero, partidua aurrera atera dezakegu, taldea ilusioz ikusten dut".



Argazkian, Sergio Francisco defentsaz inguraturik aurtengo partidua batean.

Bergara saikapeneko 7. tokian dago, 16 punturekin. Bergarak ez du aurtengo ligari Agorrosinen partidurik galdu. Hala ere, bere zaleen aurrean azken garaipena urriaren 12an lortu zuen, Real Union B taldearen aurka (3-2). Agorrosinen jokatutako azken bi partidua berdindu egin ditu Bergarak, Alaves C (2-2) eta Aurrera Vitoria (0-0) taldeen aurka, hain zuzen. Azken jardunaldian Bergarak 2-1 galdu zuen Donostian, UPVren aurka.

Hamaikakoa aurreratu ez duen arren, hauek izan daitezke Garaik zelairatuko dituen jokariak: Markel, Txonan, Etor, Aritz, Berrondo, Jokin, Josetxo, Arkaitz, Errasti, Gorka San Vicente eta Paco Santiago.

Bergarak ez du inolako bazarrik biharko partidurako eta azken jardunaldian Etor Laskurainek eta Mikel Osorok aurtengo ligari debutatu zuten. Joan zen urtean Real 2 eta 1eko emaitzarekin nagusitu zen Agorrosinen, azken minutuan sartutako gol bati esker.

## BAZKIDEEK ERE ORDAINDU BEHARKO DUTE

Biharko partidua klubaren laguntzarako egun-erdi bezala izendatu du elkarteko zuzendaritzak. Beraz, bazkideek 500 pezeta ordaindu beharko dute bazkide txartela erakutsiz, erretiratuendako eta gazteendako sarrearak 200 pezeta salgai jarriko dira eta bazkide ez direnek 1.200 pezeta ordainduko dute.

## karteldegia

### FUTBOLA

#### Bergara-Amaikak Bat

Infantilak. Zapatua. 11:30. Ipintza

#### Bergara-Real Sociedad B

Hirugarren maila. Zapatua. 15:30. Agorrosin

#### Bergara-Mondragon

Neskak. Zapatua. 17:30. Ipintza

### ESKUBALOIA

#### Bergara-Beasain

Kadete mutilak. Zapatua. 17:30. Kiroldegia

#### Bergara-Aloña Mendi

Jubenil mutilak. Zapatua. 19:00. Kiroldegia

#### Bergara-Beasain

Senior mutilak. Domeka. 12:00. Kiroldegia

### SASKIBALOIA

#### Bergara-Elurte (Lezo)

Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia

#### Bergara-Atl. San Sebastian

Kadete mutilak. Domeka. 10:30. M.Lagundia

#### Bergara-Arrasate

Jubenilak. Domeka. 12:15. M. Lagundia

### PILOTA

#### Eneko Muguruza-Jokin Oregi (infantilak)

GIPUZKOAKO KUBEN ARTEKO TXAP.

#### Bergara-Añorga (kadeteak)

Bergara-Arrasateko (2. mailako jubentilak)

Gaur, eguakitzan, 19:30ean U. Pilotalekuan

## emaitzak

### FUTBOLA

#### UPV 2; Bergara 1

Hirugarren maila

#### Bergara 7; Antzuola 1

2. erregionala

#### Bergara 6; Eibartarrak 0

Neskak

#### Bergara 1; Sporting Herrera 1

Ohorezko jubentilak

#### Burumendi 6; Bergara 5

Lehen mailako jubentilak

#### Bergara 0; Lengokoak 1

Ohorezko kadeteak

#### Bergara 5; Eibartarrak 1

Bigarren mailako kadeteak

#### Eibartarrak 0; Bergara 1

Infantilak

### ESKUBALOIA

#### Bergara 16; Almen 20 Kadete mutilak

Legazpia 25, Bergara 19 Jubentil mutilak

Tolosa 24; Bergara 25 Senior mutilak

### SASKIBALOIA

#### Alde Zaharra 61; Bergara 50 Seniorrak

Irun 45; Bergara 48 Jubentilak

Beasain 54; Bergara 81 Kadeteak

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Lanerako mahoizko jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

**Arantza**  
Erlojutegia

Barrenkalea 4  
943 76 10 04





# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Fac-Torrekua	4-2
Buya-Errotagain	0-9
Apa Oxemai-Bar Canalejas	8-5
Amoskibar-Eri	4-3
Irubide-Bildurbarek Opel Lam	6-7
Bar Ugarte-Pagomendi	2-5

### B MULTZOA

Manitou-Vacalouras	7-3
Kanpazar-Suntsitzailleak	9-2
P. Bergara-Amilotx	2-1
Tom Cat Argandolas-Bayer	5-3

### C MULTZOA

Agirrebeña-Aterpe	5-11
Mongatxurak-Guadalest	5-2
Ezinleike-Shaktale	3-6
Artusamak-Txipiron	5-4
Latex-Patxaran Team	2-4
Mo(ko)lotov-Komando Piperrak	8-6

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Shaktale-Latex	Eri
<b>ZAPATUAN KANPOAN</b>	
10:30: Eri-Buya	Latex
16:00: Guadalest-Mo(ko)lotov	Canalejas
17:00: Canalejas-Irubide jatetxea	Pagomendi
18:30: Pagomendi-Fac	Irubide

### DOMEKAN BARRUAN

9:30: Txipiron-A Ze Flaxa	Etengabe
10:30: Etengabe-Ortzi	Txipiron
16:00: Suntzitailleak-Tom Cat	K.Piperrak
17:00: Komando Piperrak-Ezinleike	Bayer
18:00: Bayer-Kanpazar	Bildurbarek
19:00: Bildurbarek-Bar Ugarte	Aterpe
20:00: Aterpe-Pinturas Bergara	Bar Ugarte

### DOMEKAN KANPOAN

11:30: Errotagain-Apa Oxemai	Torrekua
12:30: Torrekua-Amoskibar	Errotagain

## ARGI!


### Partidu istilutsua

Mongatxurak eta Guadalest arteko partiduan joku gogorra eta jokalarien arteko istiluak izan ziren nagusi. Ikusitakoa ikusita, antolaketak akta beraztertuko du aste honetan eta baliteke zigorren bat edo beste ezartzeta.

### Zigorrak

Suntsitzailleak taldeko Ibai Romero jokalaria bi partiduko zigorra ezarri zaio epaileari protesta egiteagatik. Era berean, Agirrebeña jatetxea taldeari puntu bat kendu zaio epaile bako bat bar aurkezteagatik.

## mahoneroak



MIKEL OSORO  
BKEko jokalaria

Zapatuan, Donostiako Beriyo futbol zelaian, UPV-ren aurka jokaturako partidua nahiko parekatua egon zen hasierako minutuetan. Gola sartzeaz gain, gureak izan ziren aukerarik onenak lehendabiziko 45 minutuetan. Beraiek falta jaurtiketetan eta kornernetan sortzen zuten arrisku gehien, jende altua zutelako. Atsedendira gol bateko aldeaz joango ginela uste genuenean, berdindu egin zuten, lehen zatian amaieran; gol psikologiko horietariko bat sartu zituzten.

Bigarren zatian, kornet jaurtiketa baten ondorioz, beraien bigarren gola etorri zen eta ahaleginak egin arren, ezin izan genuen berdinketarik lortu.

Zapatuan partidu zaila izango dugu Realaren aurka. Oraindik ez dute partidurik galdu, baina horrela-koetan zeinek daki zer gertatuko den. Jende gutxik uste zuen Lemoari irabaziko geniola, eta garaipena lortu genuen. Motibaziorik ez zaigu faltako eta ea puntuak etxean geratzen diren.

### Bildurbarek, Shaktale, Pagomendi

Bildurbarek A multzoko lider berria dugu, Pagomendi 5 eta 2 irabazi baitziren Bar Ugarteri. Shaktale Ezinleikeri nagusitu zitzaion (6-3).



**GORA eta BEHERA**



### Buya, Agirrebeña, Vacalouras

Buya galdu egin zuen Errotagainen aurka (0-9); Agirrebeñak partidua galdu eta puntu bateko zigorra jaso du eta Vacalourasek galdu egin zuen (3-7).

## SAILKAPENA

### A multzoa

	P	J
1. Bildurbarek Opel Lam	19	7
2. Bar Ugarte	18	7
3. Pagomendi	18	7
4. Bar Canalejas	18	7
5. Errotagain	16	7
6. Fac	12	7
7. Apa Oxemai	7	7
8. Amoskibar	6	7
9. Buya	4	7
10. Eri	3	7
11. Torrekua	3	7
12. Irubide jatetxea	0	7

### B multzoa

	P	J
1. Aterpe	21	7
2. Ortzi	13	6
3. Manitou	13	7
4. Pinturas Bergara	13	7
5. Tom Cat Argandolas	13	6
6. Kanpazar	12	7
7. Amilotx	12	7
8. Bayer	6	7
9. Vacalouras	4	7
10. Etengabe	1	6
11. Suntsitzailleak	1	6
12. Agirrebeña jatetxea	0	7

### C multzoa


	P	J
1. Mongatxurak	21	7
2. Artusamak	16	7
3. A Ze Flaxa	12	6
4. Ezinleike	9	6
5. Komando Piperrak	9	6
6. Patxaran Team	7	7
7. Mo(ko)lotov	7	6
8. Guadalest	6	6
9. Shaktale	6	6
10. Txipiron	3	4
11. Latex	1	6

Informazio hau babesle hauei esker:

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza  
2A behe ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

## Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Ander Berraondo.....5 puntu  
Jokin Mendiartz.....5 puntu  
Txonan Gallastegi.....4 puntu  
Paco Santiago.....4 puntu  
Aritz Arabiourrutia.....4 puntu

Etzeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.



# B e r g a r a k o

# OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 •
- IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76
- **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 •
- ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE** Edurne. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

*Osasunez bizi izateko!*



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Barrenkalea.  
943 35 39 91 (gauzez).

Matxiategi.  
943 76 34 33.

Zubiaurre. 100 m<sup>2</sup>.  
Prezio ona. 943 76 28 49  
edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

Duplexa Urteagan.  
Berriztua eta  
berogailuarekin.  
943 76 73 07 (Belen).

**EROSI**

Baserria erosi edo  
alokatuko genuke.  
943 76 73 41  
(Aintzane), arratsaldez.

**ERRENTAN EMATEKO**

Logelak alokairuan,  
sukaldea erabiltzeko  
eskubidearekin.  
943 76 15 40.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Etxea hartuko genuke  
errentan, aukeran,  
San Antonio edo  
Labegaraieta inguruan.  
943 76 18 73.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.  
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**BESTELAKOAK**

Lursaila salgai Errioxan,  
San Millan de la Cogo-  
llan. 943 76 26 95.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Ibargarai. 649 940 232.

Santa Marina ostean.  
Erosteke edo alokatze-  
ko. 943 76 37 69.

Ibargarai. 943 76 00 93.

San Lorentzo.

Deitu 943 76 14 97  
telefonora.

**ERRENTAN EMATEKO**

Boni Laskurain.  
943 76 49 56.

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain.  
606 217 256.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

San Juanen bi lokal (60

eta 50 m<sup>2</sup>). Gasa ipintze-  
ko aukera. 943 76 21 15.

Lokala errentan Bolun  
(100 m<sup>2</sup>) eta Arruriagan  
(18 m<sup>2</sup>). Oso merke.  
606 962 380.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Geriatría eta klinika  
laguntzailea. Gaixoen  
eta terminalen lagun-  
tzarako. 609 770 133.

Neska edozein laneta-  
rako gertu. 600 600 531.

Emakumea umeak  
zaindu edo etxeko  
lanak egiteko gertu.  
943 76 56 92.

Lana egingo nuke  
15:00etatik 17:00etara.  
943 76 36 68 (13:00-  
14:00 eta 19:00-21:00).

**ESKAERAK**

Emakumea behar da bi  
ume zaintzeko.  
Arratsaldeetan, 4 ordu.  
943 76 50 86.

Emakumea behar da  
etxeko lanak egin eta  
umeak zaintzeko.  
943 76 09 17.

Emakumea behar da  
umea zaindu eta  
etxeko lanak egiteko.  
943 76 71 96.

Pertsona euskalduna  
behar da umeak zaindu  
eta etxeko lanak egite-  
ko. 943 76 70 33.

Neska behar da umeak  
zaindu eta etxeko lanak  
egiteko. 943 76 19 27.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

Ingeles Filologian lizen-  
tziadunak ingeles esko-  
lak ematen ditu.



**Ur-bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea  
**BERGARA**  
943 76 00 57  
630 261 617

ile apaindegia  
eder gela


**disdira**

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

*Ganbara*  
**TABERNA**

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



**ANDUZV**

ANDUZU S.L.  
Simon Arrieta, 1, 4-C  
607 349 043



**Garabi zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta  
era guztietako kargak

**iRUDI**

Erloju denda  
**Bitxitegia**

Ibargarai, 2  
943 6 51 65

**ZUBIAURRE**  
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atepak.
- Neurriera egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako artz-lanak.

Zubiaurre, 2. Bergara.  
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73



943 76 30 28 /  
659 331 741.

Marrazki eta pintura  
eskolak ematen ditut.  
943 76 40 14.

#### ESKAERAK

Batxilergoko 1. mailako  
eskola partikularrak  
jaso nahi genituzke.  
653 749 990.

#### 6. IBILGAILUAK

##### SALDU

Yamaha FZR 600 moto  
more-beltza. 1993.  
Maletina eta osaga-  
rriak. 627 210 891.

Suzuki Marauder 250 cc  
motoa. 629 771 085.

Ziklotomorra.  
943 76 54 11.

Trialeko motoa. 250 cc.  
125.000 pta.  
943 79 78 36.

Honda CB500 motoa  
(1996). 34 CVra mugatu-  
ta. Estrak. 678 084 367.

Renault Laguna. Bi urte  
eta erdi. 70.000 km.  
943 76 45 73.

Fiat Tipo 2.0 16V  
(SS-AN). 686 457 610

(18:00etatik aurrera).

Derbi Variant motoa.  
943 76 49 88.

Opel Kadett 1.7 D  
(SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000  
HDI. Otsailean erosia.  
Estrak. 610 384 896.

Scooter Skipper 125  
motoa. Matrikulatua, ia  
berria. 943 76 61 05.

#### 7. ANIMALIAK

##### SALDU

Yorkshire Terrier txakur-  
kumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain  
txakurrak. 943 76 52 21.

#### BESTELAKOAK

Bi txakurkume opari.  
Snaucer-ekin nahastua.  
943 76 00 48.

#### 8. DENETARIK

##### SALDU

Besaulki modularra eta  
horrekin ondo ematen  
duten tapizatutako  
aulkiak. Eta mahai  
hedagarria.  
943 76 03 01.

Umeen kotxeendako  
burbuila. Merke.  
943 76 23 53.

Bikotearendako logela:  
Roche Bobois markako  
ohea eta mahaitxoak.  
943 76 71 50.

Umeendako logela: zu-  
riz lakatutako armairua  
eta sinfonierra.  
943 76 71 50.

Piragua ia berria,  
gerriko estalkitxo eta  
arraunarekin. Merke.  
943 79 78 36.

Irristagailudun tronboia.  
Ia berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7  
kaxoiduna. Ia berria.  
Prezio ona. 943 76 12 01  
edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschreuders  
HC30R pianoa.  
943 76 06 41 (gauze).

Ordenagailuaren bozgo-  
railuak. 677 648 230.

#### EROSI

Umeendako bigarren  
eskuko Bebe Confort  
markako aulkia erosiko  
nuke (bikiendako).  
943 76 09 17.

Borda erosiko nuke.  
943 76 26 82.

Txanpon zaharrak  
erosiko nituzke.  
639 822 790 (Pello).

Bigarren eskuko saxofoi  
altua erosiko nuke.  
Deitu 943 76 29 67  
telefonora.

Umeendako bigarren  
eskuko kotxea erosiko  
nuke (bikiendat).  
943 76 19 27.

#### GALDU

Urrezko lepoko bat gal-  
du dut, bihotz-irudi ba-  
tekin. 943 76 28 85.

Hilaren 4an Festina  
markako mutil-erloju  
horia galdu nuen Boluko  
frontoian. 943 76 57 77.

#### AURKITU

Urrezko eskumuturre-  
koa topatu dut. Izena  
dauka. 943 76 50 28.

Urriaren 29an emakume-  
erlojuja topatu nuen Bur-  
diñaten. 943 76 00 20.

#### BESTELAKOAK

Botatzeko daukazun  
telebista hori gustura  
hartuko nuke edo merke  
erosiko. 943 77 91 25,  
lanorduetan (Jon).



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**INDUSTRI  
GARBITASUNERAKO  
LANGILEA**  
Bilbo. 41564/1

**DISEINU GRAFIKOKO  
IRAKASLEA**  
Bilbo. 41441/4

**METALURGIAKO  
APRENDIZA**  
Plentzia-Mungia. 40674/6

**MEKANIZAZIORAKO  
LANGILEA**  
Bilbo. 39948/4

**AUTOMATISMO  
IRAKASLEA**  
Bilbo. 39661/4

**ZERBITZU SALTZAILEEN  
IRAKASLEA**  
Laudio. 41557/1

**ZERBITZU SALTZAILEEN  
IRAKASLEA**  
Bidasoa behea. 41556/1

**ENPRESA-IRUDI  
IRAKASLEA**  
Donostia. 41553/1

**PSIKOLOGIA ETA  
SALTZEKO TEKNIKETAKO  
IRAKASLEA**  
Debagoiena. 41552/1

**ANIMAZIO  
SOZIOKULTURALA  
EMATEKO IRAKASLEA**  
Debabarrena. 41551/1

**LORE ZAINZAN  
ADITUENDAKO  
IRAKASLEA**  
Gasteiz. 41542/1

**GARBITASUNERAKO  
3 PEOI**  
Gasteiz. 41338/2

**IZURRITEEN  
KONTROLERAKO  
LANGILEA**  
Ibai eskuinaldea. 41336/2

**METALEKO LANGILEA**  
Urola kosta. 41160/1

**ENKOFRTAZAILEA**  
Plentzia-Mungia. 41030/3

**AZAFATA**  
Bilbo. 41023/4

**ENKOFRTAZAILEAK 3**  
Reinosa. 40760/5

**MAITRE**  
Andorra. 40731/1

**TABERNAKO  
ZERBITZARIA**  
Andorra. 40729/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

## Bergarako Udala



Bergarako Udalak  
kale-garriketa  
Zerbitzurako peoia  
kontratatu behar du lehiaketa-  
oposizio bidez eta behin-behineko  
lan kontratuarekin.

#### Lehiakideen baldintzak

- Eskola ziurtagiria edo parekoa izatea.
- Euskara jakitea, lehen hizkuntza eskakizunari dagokion maila, ez derrigorrezkoa.
- Langabezian egotea eta dagokion bulegoan izena emanda egotea kontratua sinatu aurretik.

#### Instantziak

Instantziak aurkezteko epea  
2000ko azaroaren 30ean, 13:30ean  
bukatu da.

**Oinarriak Udaletxeko  
Idazkaritzako bulegoetan.**

**TABERNA  
ALOKAIRUAN  
ezin delako  
atenditu  
649 238 205**

**DEBA  
GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi, 2-behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**BELAR DENDA  
salgai  
Zurraderon  
943 76 58 83  
(09:30-13:00)**

#### Etxebizitza berriak

Antzuola erdialdean

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak

**ILE APAINTZAILE  
lanetarako  
emakumea behar da  
943 76 22 48**

**Jean Louis David**

Ibargarai, 43. Bergara

**ILE APAINTZAILEA  
behar da  
Esperientzia  
derrigorrezkoa  
943 77 13 03**



## Orfeoia eta Goikobalu, bateginik zapatuan Arrasateko Amaia antzokian

Arrasatearrak eta bergararrak talde bateratua egiteko asmoa aztertzen ari dira

**Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu Abesbatza talde bakarra sortzeko ahaleginetan ari dira. Hala ere, bakoitzak bere izate eta egitarauarekin jarraituko du; talde berria aparteko entitatea izango da eta izena ere berezkoa izango du. Hauek guztiak, ordea, asmoak dira oraindik, eta gauza asko zehaztu gabe dituzte. Hala ere, elkarlanaren adibide gisa, bihar, zapatua, kontzertua eskainiko dute, gaueko 22:30ean, Arrasateko Amaia antzokian.**

Abesbatza bakarra sortzeko asmoa iaz otu zitzaion David Azurtza Bergarako Orfeoiko zuzendariari eta Mikel Maidagan Arrasateko Goikobalu Abesbatzako zuzendariari. Ideia, elkarrekin eskainitako "Carmina Burana" operaren baitan sortu zen.

Abesbatza bakarra sortzeak ez du esan nahi Bergarako Orfeoia eta Goikobalu Abesbatza desagertuko direnik. Bakoitzak bere egitarauarekin jarraituko du. Abesbatza berria aparteko entitatea izango da eta egitarau propioa izango du. Abesbatza bakarra sortzeko asmo horrek bi helburu nagusi dituela azaldu du David Azurtzak, Bergarako Orfeoiko zuzendariak: batetik, kopuruz handiago izatean, "egonkortasuna ematen dio taldeari", eta, bestetik, "talde bakoitzak orain arte abestu ezin izan dituen obrak kantatzeko aukera eskaintzen du, hau da, errepertorioa zabaltzeko".



Abesbatza bakoitzak bere egitarauarekin jarraituko du eta talde berriak berea izango du.

ARTXIBOA

### 80 LAGUNETIK GORA

Kopuruari dagokionez, 80 lagunetik gora hartuko ditu talde berriak. Horrez gain, kopurua oraindik ere handiago izateko, Aritzeta Abesbatzari, Oñatiko Ganbara Koruari eta Aretxabaletako Abesbatzari parte hartzeko gonbita egin diete. Erantzuna datoren martitzenean jasoko dute.

Izan ere, eta arestian aipatu bezala, proiektua orain ari dira garatzen, eta gauza asko zehaztu gabe daude. Taldearen izena ere ez dute pentsatu, eta ezta programa zehaztu ere.

### ENTSEGUAK ETA ZUZENDARITZA

Talde biek elkarrekin entseiatzeko modua aurreikusita dago. Talde ba-

koitzak, bere egitaraua garatzeko, martitzen eta eguenean entseiatzen du. Bi taldeen entsegu egunak berberak direnez, talde bakarra sortzean, martitzen edo eguenean elkartuko dira, beharren arabera; batean Bergaran, bestean Arrasaten.


Zuzendaritzari dagokionez, David Azurtza eta Mikel Maidagan, biak aldi berean izango dira taldeko zuzendari. Zapatuan Amaia Antzokian eskainiko duten kontzertuan ere horrela arituko dira. Emanaldiak bi parte izango ditu: lehenengoa, John Stainer musikagilean oinarrituta, David Azurtzak zuzenduko du, eta bigarrena, Leonard Bernstein konpositorean oinarritutakoa, Iñaki Maidaganez.

**PILI GISASOLA**

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentroa

Zurradero, 2-behea.  
☎ 943 76 58 83



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Irala 3  
Telefona:  
943 76 48 26



**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a





Iazko Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazleak.

## Amodiozko gutunen zortzigarren deialdia zabaldu du Jardunek

**Lehiaketan** 1986an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Bestalde, gutun forma izan beharko dute, eta eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Lanaren luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Lanean ez da egilearen daturik jarriko; lelo bat soilik. Egilearen datuak gutunazal itxi batean sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean jarri den lelo bera jarriko da.

Lanak aurkezteko azken eguna 2001eko utarrilaren 8a izango da eta helbide honetara bidali beharko dira: Jardun elkarte, Juan Irazabal, z/g (Kartzela Zaharra), 20570, Bergara.

Sariak honakoak izango dira: lehenengoa, 75.000 pezeta; bigarrena,

40.000; eta bergarar onenarendako saria, 25.000 pezeta. Sariak otsailaren 14an, San Balentin egunean, banatuko dira.

### MUNDU OSORA

Mundu osora zabalduko du aurten deialdia Jardunek. Izan ere, lehiaketaren oinarriak munduan zehar dauden Euskal Etxe guztietara bidaliko ditu. Bestalde, beste berrikuntza bat ere bada; gutunak e-posta bidez bidali ahal izango dira Jardunera word formatoan. Helbide elektronikohauxe da: [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com).

Epaimahaiari dagokionez, kulturaren munduko lau lagunek osatuko dute: Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak, Juan Mari Iturralde idazleak, Maialen Aizpirolea iazko irabazleak eta zehaztu gabeko laugarrenak.

### erreseinak



**Bazterrekoak**  
**Xabier Aldai**  
Ipuinak

Hamahiru ipuinek egiten dute "Bazterrekoak". Benetakoak diruditen kontu hauetan bada beti sakonean misterio bat; ez, ordea, misterio harriarri eta tipikoa, baizik eta eguneroko bizitzan adierazteko eta argitzeko hain zail bihurtzen zaizkigun arrazoi bat edo gaizki-ulertu bat edo sentipen bat. Gupidarik gabe idazten du Xabier Aldaik. Hauxe, argitaratu eman duen bigarren liburua da. Lehenengoa, "Bala Zeru Urdina" poesia-liburua izan zen.

- Susa. 214 or. 1.900 pta.



**Anari**  
**Habiak**  
Kantautorea

Bertso eta melodien ehiztariek gustura hartuko dute Anariren bigarren disko hau. Show business-aren arauak ez ei ditu gustuko; gutxitan agertu da jendaurrean, eta bere denbora hartu du hamaika kantuz osatutako "Habiak" diskoa argitaratzeko. Mikel Abrego (bateria), Xabi Strubell (gitarra) eta Kaki Arkarazo (ekoizpena) izan ditu lagun. Diskoan poesiak ez dio zirrikiturik uzten autoatseginari; hitzaren estetika konpromiso moral zorrotzaren gainean eraikia dago, eta musika ondo aberastuak, neurri handi batean, albora uzten du hauskortasun akustikoa. Aurreko lanean bezala, bere baitan sartzeko giltza ematen du Anarik.

- Esan Ozenki records. 1.900 pta.

## ARREGI

**Eraikuntza materialak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tf. 943 76 27 93

## ETXE PARE-BILINTX



**LIBURUDENDA**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



**denborapasa**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

**Ezker eskuma**

1. Mendigoizalea.
2. Araudiak.
3. Belar idor. Hosto.
4. Nafarroako urtegia. Ez emea. Tona.
5. Zein unetan. Argona.
6. Errepikatuz, gorotza. Aroa. Nitrogenoa.
7. Ez zuzen. Aluminioa. Gironako ibilgailuetan.
8. Nitrogenoa. Irudi geometrikoa.
9. Landare mota. Iridioa. Txakur.
10. Espartinak. Urrea.

**Goitik behera**

1. Tristezia.
2. Oldarra. Herri Batasuna.
3. Lasai. Eguzkia.
4. Daukat. Zaude. Röntgen.
5. Arnas ezak hila. Kontsonantea. Partitiboaren ezaugarria.
6. Herri hizkeran, zer. Detektagailua.
7. Abuztua. Potasioa.
8. Italiako dirua. Lehenengoa. Har ezak!
9. Eako. Tona. Nahia.
10. Frantziako hego-mendebaldeko lurralde historikoa. Uranioa.


**Soluzioa**

1. Mendizalea.
  2. Arautegiak.
  3. Lasto. Orri.
  4. Esa. Arra. T. 5. Notz. Ar.
  6. Ka. Aldia. N. 7. Oker.
  8. Ta. 6. Ka. Aldia. N. 7. Oker.
  9. Al. Gi. 8. N. Karrotua.
  10. 9. Ihi. Ir. Or. 10. Abarkak. Au.
- Goitik behera:
1. Malenkontia.
  2. Erasoak.
  3. Nasai. Ekia.
  4. Dnt.
  5. Itoa. L. Rik. 6. Ze.
  7. Zera. R. 5. Itoa. L. Rik. 6. Ze.
  8. Radarra. 7. Agorria. K.
  9. Lira. A. Tol. 9. Ear. T. Gura.
  10. Akitania. U.

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar




**Kalezulo honek lotzen dituen bi kaleetako batek, Bartzelonako Unibertsitateko botanika katedraren sortzailearen izena du. Nor zen ikerlari bergarar hau?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein da "iretargixan moduko arpegixa"n sinonimoa?  
 A- Talo arpegixa  
 B- Arrautza arpegixa  
 C- Zezen arpegixa
2. Zein urtetakoa da Uberako San Matei ermita?  
 A- 1565koa  
 B- 1556koa  
 C- 1656koa
3. Zein da Real Sociedad B taldeko entrenatzailea?  
 A- Salva Iriarte  
 B- Roberto Lopez Ufarte  
 C- Migel Etxarri



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Rakel Cerdeira**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Rakeli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zabalotegi** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

**BONOFOTOA**

---

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

lizen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Fairy**  
 Ontzi-garbigailua, 750 ml.  
**269 PTA!**  
 Super BMen beti eskaintzarik onenak!



# Asteko programazioa

## EGUAKITZA 17

**13:30:** Albiste aurrerapena.  
**13:40:** Gatza eta Berakatzeta.  
**13:55:** Hamaika Magazin (errepika)  
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.  
**21:30:** Astebete.  
 Marijo Deograsiasekin.  
**22:00:** Soinuz blai. Haika Aizpuruak aurkeztuta.  
**22:30:** Gatza eta Berakatzeta.

## ZAPATUA 18

**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatzeta, Xeleberri, Alkatearekin Berbetan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

## DOMEKA 19

**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatzeta, Xeleberri, Alkatearekin Berbetan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

## ASTELEHENA 20

**13:30:** Albiste aurrerapena.  
**13:40:** Gatza eta Berakatzeta.  
**13:55:** Astebete.

**20:00/20:30/21:00:** Berriak.  
**21:30:** Goienasport.  
**22:00:** Gatza eta Berakatzeta.

## MARTITZENA 21

**13:30:** Albiste aurrerapena.  
**13:40:** Gatza eta Berakatzeta.  
**13:55:** Goienasport (errepika).  
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.

**21:30:** Xeleberri. Mundu ero honetan gertatzen diren albiste xelebreei errepasoa.  
**22:00:** Gatza eta berakatzeta.

## EGUAZTENA 22

**13:30:** Albiste aurrerapena.  
**13:40:** Gatza eta Berakatzeta.

**13:55:** Xeleberri (errepika)

**20:00/20:30/21:00:** Berriak.

**21:30:** Aurrez Aurre.

Elgetako bi laguneri tokatuko zaie aurrez aurre egotea. Esteban Olaortua arotzak Iban Arantzabal gazteari galderak erantzungo dizkio.

**22:00:** Gatza eta Berakatzeta.

## EGUENA 23

**13:30:** Albiste aurrerapena.

**13:40:** Gatza eta Berakatzeta.

**13:55:** Aurrez Aurre.

**20:00/20:30/21:00:** Berriak.

**21:30:** Hamaika Magazin.

Adi zozketara. Izan ere aste honetan zozketatuko dugu reflex argazki kamara zoragarria ikatz argazki dendaren eskutik.

Eta beste hamaika kontu, noski.

**22:00:** Soinuz blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta, musika saioa.

**22:30:** Gatza eta Berakatzeta.

## Bergaran 41 kanalean

### kontuan hartzekoa

## Asteburuetan badago zer ikusi

*Asteko saioen errepikapenak Zapatua eta domeka, 13:30*

Zapatu eta domekero, geurean, GOITBn, bada zer ikusirik.

13.30ean ekiten zaio asteburuko emisioari. Eguneroko informatibo eta asteleheneroko Goienasport saioak ezik, aste osoan emandako programak errepikatzen dira. Aukera paregabea astean zehar saioen bat ikusi nahi izan, baino aukerarik izan ez duzenontzat.

Honela, 13.30ean, otorduari behar bezelako hasiera emateko, Gatza eta Berakatzeta sukalde programako errezetarik hoberena eskeintzen da. Xeleberri ondoren, Unai eta Iratxeren informatibo eroa. Eskortatza hizpide duen Alkatearekin Berbetan saioa segidan. Hamaika magazin, Soinuz Blai eta Aste Bete saioak, bukatzeko.



### ikustekoak!



### Aurrez aurre

Esteban Olaortua, arotz elgetarra.  
*Eguaztena, 21:30.*



### Hamaika Magazin

Osasuna, bidaiak, artea... eta zozketak!  
 Aste honetan reflex argazki kamara bat!  
*Eguena, 21:30.*



### Gatza eta berakatzeta

Miren Maiztegiarekin.  
*Astelehenetik eguakitzera, 13:40.*



### Berriak

Maidar Osaren eskutik, eguneko albisteak.  
*Astelehenetik eguakitzera, 20:00, 20:30 eta 21:00.*





## Maria "Txantxote"ren ikasleak

Joan zen eguaztenean, azaroak 8, Maria Oianguren, Maria "Txantxote", hil zen Bergaran. Bergarako Ariznoa Euzko Ikastola Batzar, Euskal Herriko lehendabiziko eusko ikastola izan zen Xabier Linazisorok eman dizkigun datuen arabera, eta Maria Oianguren bertako zuzendari eta irakasle izan zen hainbat urtetan. Aste honetako erretratua, gerra aurretik Euzko Ikastola Batzarrekoak Gernikara egindako irteera batekoa da. Erretratua 1933. urte ingurukoa da eta ikasleekin eta irakaslearekin batera, batzarreko hainbat kide agertzen dira, Gernikako Arbolaren ondoan. Maria "Txantxote"ren ikasle izandakoek omenalditxo bat eskaini nahi izan diote, argazki honen bitartez, bere irakaslea izandakoari. Argazkian, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Andoni Lazpiur, Joseba Laborda, Jesus Berroya, Migel Oianguren (Mariaren anaia) eta Xabier Mujika.

**Beherago:** Bittori Aranburu, Txomin Marco, Agustin Linazisoro eta Anita Txintxurreta.

**Hirugarren ilaran:** Inazio Iturbe, Maria Luisa Narbaiza, Lierni Gallastegi, Matxalen

Oianguren (Mariaren ahizpa), Julia Beistegi, Maria Oianguren irakaslea, Jasone Marco, Elisabet Arana, Miren Linazisoro, Asuntxi Zorita, Rosarito Villar, Paula Beitia eta Josu Azkarate.

**Bigarren ilaran:** Aintzane Marco, Arantxa Arana, Joseba Sotil, Patxi Azkargorta "Lugarri", Jon Arrieta, Anbortxi Goenaga, Esteban Zabaleta, Tomas Iturbe, Agustin Linazisoro, Felix Narbaiza eta Jose Mari Unamuno.

**Aurrean, jarrita:** Itziar Arantzabal, Miren Lizarralde, Patxiko Ubillos, Juan Jose Hernandez, Iñaki Arrieta, Jesus Murgizu, Andoni Lazpiur, Xabier Linazisoro, German Ibarra eta Juanito Mendizabal.

**Argazkian azaltzen ez direnak:** Martin Arana, Mari Kruz Gallastegi, Edurne Laborda, Lide Ostolaza, Amaia Ostolaza, Mari Tere Otagi, Lukile Goenaga, Iñaki Mujika, Iñaki Sotil, Blas Ugalde, Purita Barrena, Lore Larrañaga, Maria Pilar Lonarbide, Edurne Ibarra, Patxi Zabaleta, Isabelita Narbaiza, Joseba Mujika, Mari-txu Berroia eta Benito "Ubesarri".

*Argazkia: Xabier Linazisoro.*

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59



**umelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25





3.000.000 ibilgailu baino gehiago aseguratuta lasai-lasai errepidean



# Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# Ametz

EDERTZE ARETOA

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■


**MIKROPIGMENTAZIOA**



Ezpainak, betileak...  
Edertu eta zaindu zaitez



Betiko depilazioa. Osasuna zainduz, minik gabe eta zure azalarendako arriskurik gabe.



# LASER DEPILAZIOA LIGHTSHEERekin

Laser medikua



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



Jakina, zurekin pentsatzen



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**   
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.